



ARGIA

**MILAKA HERRITARREK
BOZKATUKO DUTE
BURUJABETZAZ
LEHENIK HISTORIAN**

» JOSE MARI USTARROZ: "PROPORTZIOAN ARTZAIN ETA GAZTAGILE GEHIEN DAUZKAGU MUNDUAN"

» ETXEKOGIZONAK: *ISILEAN* ERAKUSKETARI BURUZKO ARGAZKI ERREPORTAJEA

» KONTSUMO ARDURATSUA: PLASTIKORIK GABE BIZITZEKO ALTERNATIBAK



JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren "BIZI BARATZEA" liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin



ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

© 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Mikel Zurbano
- 20 Imanol Alvarez
- 21 Iñaki Murua
Itxaro Borda



Etzeko lanei buruzko 'Isilean' erakusketa antolatu du Pello Ulaziak, gizonen iraultza isila egin eta zaintzaren ardura har dezatela aldarrikatuz. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
AMAIA ANTERO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
JON URBE / ARGAZKI PRESS

SAKONEAN

- 14 | Jose Mari Ustarroz, bizitza osoa artzain eta gaztagileen lanaren balioa aldarrikatzen / Reyes Ilintxeta
- 22 | Burujabetza hautestontzietan: herrien txanda da / Xabier Letona
- 28 | 'Isilean' erakusketa. Etxekogizon lanean, zaratarik atera gabe / Dani Blanco
- 32 | Danny Morrison, Sinn Féineko komunikazio arduradunarekin solasean / Martin Mendizabal
- 34 | Normal antzean bizi daiteke plastikorik gabe / Marijo Deogracias Horrillo
- 36 | Gurasoen erronka: euskaraz aritzeko agintzetik norberak egitera / Amaia Ugalde Begoña
- 42 | Goseak bazkatzeko oturuntzak / Itxaro Borda
- 46 | Hitchcock, McGuffin-a eta ikuslea harrapatzeko amarrua / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.





PANORAMA

Bizitza da handiena

Maiatzaren 29an milaka herritarrek lotu zuten Gipuzkoako Foru Aldundia Onkologikoarekin: erraustegia egitearen erantzule nagusia da lehen, eta dioxinen ondorioz minbiziak jotako herritarrak artatuko dituen bigarrena. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren kalkuluaren arabera, 5.000 lagun behar ziren katea osatzeko, eta zati askotan hirukoiztu egin zen. Txirrinda buruan zihozten bi haur hauek eraman zituzten erraustegiaren kontrako borroken ikur den haize-errot, eta Onkologikoan mediku baten emandako mezua. Aldundiaren aurrera iritsita irakurri zuen Xabier Mitxelena medikuak mezua: "Erraustegi baten inguruan bizi diren herritarrek malformazio, aborto, minbizi eta heriotza tasa altuagoak dituzte. Behin eta berriz ematen da, erraustegi zaharrekin eta baita erraustegi modernoekin ere. Horregatik, profesional arduratsuak eta herritar kezkatuak garenez, zera eskatzen diegu agintariei: Lehenik, egia. Zintzotasunez joka dezatela. Onartu dezatela ikerketa hauek guztiak eginak daudela eta emaitzak horiek direla. Bigarrenez, ardura printzipioa aplikatu dezatela. Kasu honetan, erraustegia ez egitea.

Argazkia: Dani Blanco

“Aberastasuna eta lana banatzeko 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko lanastea”

Hala proposatu du LABek, prekaritatearen aurkako manifestazio jendetsuan.

argia.eus/multimedia



Kultur sorkuntzaren komunikazioa

Euskal kultur sorkuntzaren trsmisioari eta komunikazioari buruzko jardunaldiekin hasi zen Jalgiren laugarren eguna, Amurrioko Refor industrigunean.



Txoministak 4. atala: Crowdfunding

Txesterren ideari kasu eginenez, dokumental bat egitea erabaki dute Txoministek, beren alderdiaren oinarri ideologikoak biltzen dituen.



KENZO TRIBOUILLARD

Zortzigarren greba eguna Frantziako Estatuan

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Greba, erregai biltegien blokatzeak, bide mozketak, zentral nuklearretako mobilizazioak... El Khomri legeri aurre egin zioten zortzigarren egunez sindikatuek, CGT buru zutela, maiatzaren 26an, ahaztu gabe Nuit Debout mugimenduak eguneroko antolatzen dituen batzar eta manifestazioak.

Nuit Debouten ahaleginak arren lan erreformaren aurkako mobilizazioak ahultzen ari zirela zirudienean, maiatzaren 19an hasi ziren ostera berotzen, Manuel Valls lehen ministroak legea bozketarik gabe 49.3 dekretuz pasarazi zuenean. Egunotako greba eta blokatzeek tentsioa aspaldi ikusten ez zen mailaraino eramanez.

Herritarren eguneroko bizimoduaren konplikatzea hedabide nagusiek egotzi dioten arren CGTk François Hollanderekin daraman gudu partikularrari, hori ez da aski esplikatzen Hexagono osoan –Ipar Euskal Herria barne– ugaritu diren greba, manifestazio, bide mozketak eta blokatzeak. Gasolina hasi da agortzen leku askotan eta Gobernuak erreserba estrategikoetara jo behar izan du.

Orain artean herritarrek protestak begi onez ikusi dituzte, eta RTL katearentzako soziologia enpresa batek egindako ikerketak azaldu du frantsesen %62 ados dagoela Hollanderen lege berri honen kontrako mugimendurekin. 26an bertan lehenbiziko aldiz Vallsek iradoki zuen legearen zenbait atal aldatu edo “hobetzeko” posibilitatea, baina negoziaketa mahaian berriro esertzeari uko egin.

“Lau urte daramatzat justizia egin dadin, eta ez dut lortu”

ESTER QUINTANAK BEGI BAT GALDU ZUEN GOMAZKO PILOTA BATEK JOTA

Bartzelonako Auzitegiak absolbitu egin ditu Esquadra Mossoen E-40 unitateko inspektore-ordea eta eskopetaria. Sententziaren arabera, ezin da egiaztatu zein tirok jo zuen Quintanaren begia, ezta nork eman zuen tiro horiek botatzeko agindua ere. Sententziak, gainera, zalantzan jartzen du zauria gomazko pilota batek eragin ote zuen. “Egin dugun ahalegin eta lan guztiak ez du balio izan inpunitatearen aurka borrokatzeko”, adierazi du katalanak. **EL PAÍS (2016-05-27)**



munduan produzitutako
jakien herena
alferrik galtzen da

Alegia, **1.600 milioi tona**
janari galtzen edo botatzen da urtean

550.000
milioi
euro

3.300
milioi tona
CO²

250 km³
UR



Maila ekonomiko ertain edo altua duten herrialdeetan, kontsumitzaileek eragiten dute xahutzerik handiena. Afrikan eta Asia hego ekialdean, aldiz, produkzioan eta uztaren eraldaketan sortzen dira galarrik handienak.

Jakien %30 baino gehiago bildukietatik atera ere egin gabe botatzen da Europan.

Europar bakoitzak **280-300 kg** janari botatzen du urtean.



Bost urtetik beherako 20.000 haur hiltzen ditu goseak, egunean. Zazpi lagunetik batek ez du jatekorik. Europako Batasunean 79 milioi lagun bizi dira pobreziaren mugetan.

Iturria:
Nazio Batuen Erakundea (2016).

Infografia:
GARBINE UBEDA



Goizane eraldaketa-gunea martxan jartzeko eskatu dute Goierriko nekazariek

Argia
@argia

500 sinadura bilduak dituzte Change.org gunearen "Zaldibiako eraldaketa-gunea martxan!" kanpainarekin, Zaldibian dagoeneko prest dagoen baina Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko akordio faltaz martxan jarri ezin den transformazio-gunea lanean has dadin. Nekazaritza industrialari uko eginda bestelako laborantza eredu batean ahalegintzen ari direnek, kalitatezko produktuak ekoiztu eta herritarrekin zuzeneko harremanak lantzeko beharrezko ikusten dute Zaldibiako Goizane eraldaketa-gunea. Nork bere ekoizpena transformatzeko aukera ematen du salmenta zuzenari ekiteko: kontserbak, esnekiak, eztia, zukuak...

Idatzian salatu dutenez, Goizanek instalazioak abian jartzeko pronto dauzka, baina Gipuzkoako agintariekiko azken adostasunaren zain daude geldirik. Sinadura bilketarekin egoera hori da desblokeatu nahi dutena.

Bideragarritasuna, burujabetza eta duintasuna helburu

Hona deialdiaren testuaren zati bat: "Gipuzkoan bagara hamaika baserritar, gazte eta hain gazte ez garenak, ingurua errespetatuz bertan ekoizten eta saltzen jarraitu nahi dugunak. Bide industrialari heldu

gabe, lurrari lotutako elikagaiak sortzen ditugu, sasoian sasoikoak, eta ahalik eta ekologikoenak. Denon osasuna, bertako ekonomia, paisaia, lurra eta oro har natura zainduz gure bizimodua aurrera atera nahi dugu. Horretarako herritarrekiko tratua eta harreman zuzenak beharrezkoak ditugu. Kalitatezko elikagaiak eskaintzea eta trukean prezio duina eskuratzea da helburua.

Baserri txikietan diru-laguntzak mugatuak izaten dira eta bizirauteko efizientzia, dibertsifikazioa, transformazioa edo/eta salmenta zuzena ezinbesteko ildoak dira. Horrela bideragarritasuna, burujabetza zein duintasuna lortzen ditugu eta lanpostu berriak sortzeko aukera ere zabaltzen dugu.

Ikuspegi honetatik Zaldibian eraiki den transformazio gunearen aukera oso interesgarria da baserritarrentzat. Gune kolektiboa da eta errentagarritasun hobetzeko irtenbide berriak zabaltzen ditu: dibertsifikazioa, transformazioa, salmenta zuzena, gazteen instalazioak inbertsio txikiagoak eginez, frogak egitea, formaziorako aukerak..."

Hiru eskaera zehatz luzatu dituzte: "Prest dagoen transformazio-gunea martxan jartzea; hitzartuta dagoen bezala, dinamizazio eta kudeaketa lanentzako pertsona bat kontratatzea; eta gardentasuna eta zuzentasuna bermatze aldera kudeaketa ahalik eta publikoena bermatzea".

EKONOMIAREN TALAIAN

Patronalaren zerga-xantaia



Juan Mari Arregi

Patronala saiatzen ari da xantaia egiten, administrazioengandik abantaila fiskal gehiago lortzeko. Ondare eta Ondorengotza zergak ezabatzen badituzte "Euskadi se sale" zioen *El Correo Español*-ek azalean joan den astean. CEOeko presidentek Bilbon emandako konferentzia bateko hitzak erabili zituzten. Egiaz, titular zuzenak izan beharko luke: "Ondare eta Ondorengotza zergak ezabatzen badituzte, enpresariok kapital gehiago pilatzen jarraituko dugu". CEO-aren arabera, Euskadik egonkortasuna dauka. Ondare eta Ondorengotza zergak kopuru txikia ekartzen dute haien esanetan -Ondarearenak iaz 150 milioi euro pasa!- eta zerga horiei "uko egiteak" PFEZ bidez gehiago biltzea esan nahiko luke. Baina, ihes egindako zenbat zergadun itzuliko lirateke neurri horrekin?

Xantaia hutsa. Gutxi iruditzen zaie Elkarteen gaineko zerga %35 izatetik %10 izatera igaro izana praktikan. Ondare eta Ondorengotza zergak ere ezabatu nahi dituzte. PFEZ bidezko bilketa sumatuko dela? Gezurra. Langilegoak urtean 20.590 euro aitortzen du batez beste, enpresariak berriz 13.226 euro baino ez.

Administrazioak dira patronalaren xantaia horren jomuga, baina entzungor egin beharko lukete. Nahikoa pribilegio eskaintzen dizkiete enpresari eta aberatsei. Fiskalitatea enpresarien zerbitzura dago eta murrizketak langileentzat dira. Nahikoa da! Kapital errenta altuek zerga gehiago ordaindu behar dute, eta administrazioek iruzur eta ingeniartza fiskala pertsegitu. Europako batez besteko zerga presioa izango bagenu, 5.700 milioi euro gehiago bilduko genuke EAEn eta 1.800 milioi euro gehiago Nafarroan. Har dezatela kontuan datu hori administrazioek.



MANOLO GARCÍA / ARA.CAT

Banc Expropiaten aldeko protesta jendetsuak Bartzelonan

KATALUNIA. Banc Expropiat Bartzelonako gune autogestionatua hustu zuten Esquadra Mossoek, maiatzaren 23an. Zortzi ordu behar izan zituzten bankuan zeuden bi pertsonak eraikinetik ateratzeko. Hutsaraztea salatzeko protestetan, 23an bertan hamabost lagun zauritu zituzten, eta bigarren protesta egunean, 24an, beste hemeretzi herritar. Eraikina hutsarazi ondoren sorturiko protestak handitzen joan dira egunez egun, eta hasieran mossoekin izandako liskarrak nabarmendu baziren ere, pixkanaka manifestazio jendetsuak izan dira protagonista. La Directak emandako datuen arabera, Revolució plazan 2.400 lagun bildu ziren 25 ilunabarrean.

Genero indarkeriaren erregistro publikoari ezezkoa

Iker Oñate Aiausti

@iker_onate

Genero indarkeriaren erregistro publikoa sortzeko legez besteko proposamena egin du EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean. Auziari aurre egiteko politikak lantzerako orduan, balizko oinarri bat izatea litzateke xedea. Legebiltzarkideek atzera bota dute proposamena, EAJren, PSE-EEren eta PPren aurkako botoekin.

Beharra

EH Bilduko Diana Urrearen aburuz, genero indarkeriari buruzko datuak barnebiltzen dituen datu-base eguneratu baten beharra du EAEk, "diagnostiko errealean" oinarrituriko politikak bultzatzeko.

Ezjakintasuna

EAEko erakundeek gai honetan duten ezjakintasuna deitoratu du Urreak. Gaia epaitzen duten epaileak ez direla genero indarkerian adituak dio, eta Ertzaintzak ez duela gisako kasuak tratatzeko behar besteko formaziorik.

Badago informazioa

EAJko Lexuri Arrizabalagak dio ez dagoe la gisako erregistroa sortzeko beharrik, "genero indarkeriaren inguruko datuak egon badaudelako". Emakundek aski informazio eskaintzen duela gaineratu du.

HEZKUNTZA



178

ikastetxek planto egin diote Eusko Jaurlaritzatik proposatutako LH 3ko azterketari, Hezkuntza Plataformen Topagunearan arbera.

%35

Beraz, EAEko LHko ikastetxeen %35ek (sare publikoa, ikastolak eta kristau eskolak aintzat hartuta) erabaki du proba ez egitea.



PUBLIZITATE INSTITUZIONALA

Publizitate instituzionala euskal medioetan: kopurua zehaztea saihestu dute EAJk eta PSEk. Hala, euskarazko hedabideetan publizitate instituzionalaren %15 jarri beharrean, "arrazionaltasun irizpideak" erabiltzea adostu dute EAJk eta PSEk Eusko Legebiltzarrean.



KOLPEA BAZTANGO EUSKARA PLANARI

Euskararen normalizazio bidean Baztango Udalak onarturiko planaren aurka egin du Nafarroako Auzitegi Nagusiak. 2014ko abuztuan euskara lehenesteko hainbat neurri onartu zituen erakundeak.



AMAITU DA FRESNESEKO PRESOEN GREBA

Fresneseko euskal presoek 19 egun iraun dituen gose greba utzi dute, espetxeko zuzendaritzak jakinarazi ostean Itziar Moreno lekualdatuko duela eta ondorioz haren isolamendu egoera amaitu egingo dela.

Sostengua eta presioa Nafarroako Gobernuari



Xabier Letona

@xletona

KONTSEILUAK datorren larunbaterako Iruñean euskararen alde deitu duen manifestazioa berezia izango da, bere baitan dituelako uztartzeko errazak ez diren bi printzipio: presioa eta sostengua. Batetik, aldaketaren instituzioei erakutsi nahi die sostengua euskararen alorrean Cordovillako Brigadak egiten duen presioari eusteko; bestetik, adierazi nahi die ez dabiltzala behar beste egiten euskararen normalizazioan urratsak tinkoagoak izan daitezen, besteak beste alor ekonomikoan.

Nafarroako Gobernuan islatu dira batez ere tira-bira horiek, baina ez bakarrik kanpotik UPNk, PSNk eta enparauk egindako presioagatik, baita Gobernu barruko desberdintasunengatik ere. Hezkuntza Kontseilaritzak ateratako lan eskaintza publikoa izan da horren erakusgarri. Nabardura asko dago gertatutakoan, baina muina honakoa

Ezkerrak eta Ahal Duguk ez zuten Mendozaren plana onartu eta, batez ere Ezkerrak, isilpeko mehatxua egin zuen, Legebiltzarrean kontseilaria arbuiatzeko ekimenekin bat egingo zuela adieraziz. Gobernuak atzera egin zuen

izan zen: Mendozaren sailak plan indartsua atera zuen, Ezkerrak eta Ahal Duguk ez zuten onartu eta, batez ere Ezkerrak, isilpeko mehatxua egin zuen, Legebiltzarrean Mendoza arbuiatzeko ekimenekin bat egingo zuela adieraziz. Gobernuak atzera egin zuen. Seguruenik ez zuen beste biderik, baina trukean, hezkuntzako zerrenda bakarrarekin gogorrago borroka zezakeen.

Iruñeko Udala eta haur eskolen afera izan da beste lubakietakoa, boterearen ertza ageriago erakutsi duena. Laburpena. Iruñean diren 17 haur eskoletatik bi dira euskarazkoak gaur egun eta Udal Gobernuak datorren ikasturterako horietatik bi gehiago euskaraz izatea erabaki zuen. Cordovillako izpirituaren erreakzioa sekulakoa izan zen, baina Udalak eutsi egin zion. Bazuen zilegitasun soziala, politikoa eta barne koherentsia. Orduan epailea sartu da eta, kaute-lazko autoa medio, prozesua geldiarazi du. Atzera edo aurrera egin, afera mami-tsu dator datozen hilabeteetarako.

EAEn Espainiako Gobernuaren ordezkari Carlos Urquijoren estilora, Baztango Udalaren euskara plana ere atzera bota berri du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak. Nafarroan, UPNren foru gobernuak egiten zituen Urquijoren lanak. Ildo klasikoagoa da hori, baina hor dago. Klasikoena, hala ere, ETBrena da: jadanik lau astez itzalita dago Nafarroako lurralde gehienez Espainiako Gobernuaren aginduz.

SOSEN ERPINA ERE HOR DA, lortu nahi diren helburuei oso lotua. Ikus dezagun gobernu itunean euskararen normalizazioaz idatzitako hainbat esaldi: “Gobernuak politika proaktiboa egin behar du, nahi duten herritarrek administrazioarekin euskaraz komunikatu ahal izatea ziurtatuz”; “helduen alfabe-


tatze eta euskalduntzea eta euskarazko hedabideak estrategikoak iruditzen zaizkigu”; “hizkuntza-politika zeharkakoa izan dadin eta departamentu guztien eta gobernu osoaren lana har dezan barnean”; “administrazioko langileen euskara diagnostikoa egitea eta ele biko ibilbideak prestatzea”. “Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeta eta hobetzea...”. Luze jarraitu daiteke gobernu-ituneko asmo eta helburuez. Azken finean, hari politiko bat finkatzen dute, borondatearen arabera Atik Zrainoko emaitza eman dezakeena.

Ikus dezagun orain lehen urtean nola erantzun dien Nafarroako Gobernuak asmo horiei, adibidez Euskarabidearen finantzazioarekin, horren helburua baita “euskararen baliabideak planifikatzea, sustatzea eta kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean”. UPNren Gobernuarekin 2015ean Euskarabideak 2,1 milioi euroko aurrekontua zuen, Uxue Barkosenarekin 4 milioi ditu, %100eko igoera.

Aurreko paragrafoko helburuak diru horrekin nola eraman daitezkeen aurrera baloratzea irakurlearen esku uzten dut. Edonola, merezi du aipatzea gobernuak “gauza garrantzitsuetan” nola gastatzen duten dirua. Adibide bat: Bideko autobideak (Iruñea-Logroño) itzalpeko bidesariaren bidez ari da ordaintzen eta, aurreikuspenen arabera, 1.200 milioi euro gastatuko dira 2004-2034ko epean.

Nafarroan aldaketa nahi zuten herritarren gobernu da hau, zalantzarik gabe. Alternatibaren itzal luzeak berau indarrez sostengatzen eraman beharko luke aldaketan sakondu nahi duen herritarra, baina ez bere gabezia handiak azaleratu gabe. ■

egun ez dugu baldintza egokirik ikusten
independentzia-prozesurik irekitzeko.



GURE infanteek
BIRJINAK eta
ez birjinak
BORTXATU EGIN
ZITUZTEN
Correa 1513

Quesadaren armadak
GURE HERRIETAKO
EMAZTEKI bedera
banatzen zuen
SOLDADU-TROPA
bakoitzari

Dorregarai 1874

Castanos jeneralaren aginduz,
SOLDADUEK jauzi egiten
ZUTEN emakumeen gainean
berdin haur, neska edo atso
Bakanak ziren gero
KOLPEENGATIK desitxuratuak ez zirenenak

Lekukotasun zibilak 1813

SOK

Dan Berrigan apaiza gerrarako armak golde bihurtzen saiatu zen



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Bakezko desobedientziaren ikonoetako bat zendu berri da. Philip eta Daniel Berrigan anaia apaiz estatubatuarrei –1920ko hamarkadan sortuak– Bibliaren irakurketa zorrotzak ondorio politiko gogorak ekarri zizkien, legea urratu eta beren erosotasun pertsonala arriskuan jartzera eraman baitzituen, espetxeraino. Anaia joan den abuztuan galdurik, Daniel apirilaren azken egunean hil da Bostonen 94 urterekin.

“Estatu Batuak –idatzi du *New York Times*ek– barnetik urratzen ari ziren, giza eskubideen eta Asia urruneko gerra zirela eta, orduan azaldu zen Aita Berrigan 1960ko hamarkadan eliza katolikoaren ‘ezker berriaren’ izar intelektual moduan, aldarrikatuz arrazismoa eta txirotasuna, militarismoa eta kapitalismoaren gose ase ezina, arazo handi beraren osagaiak zirela: gizarte injustu baten osagaiak”.

1921ean jaioa, jesuiten seminariotik pasaturik 1952an apaiztu zen, ondoren Europara etortzeko urte sabatikoa hartuta. Frantziako estatuan ezagutu zituen orduko Eliza katolikoaren egitura eta ohiturak inarrostean zituzten “apaiz obreroak”, 1960ko hamarkadan Euskal Herrian ere oihartzuna izagotu zutenak.

1957an argitaratu zuen lehenbiziko poema liburua, *National Book Award* sarirako izendatzeko adina famatu zutena zenbait kritikok, eta geroztik hil artean urtero liburu bat bederen aterako zuen. 1963an Parisen barrera bisitatu zituen orduan Txekoslovakia zena, Hungaria, Hego Afrika, Israel eta Palestina eta abar... AEBak eta OTAN batetik, Sobiet Batasuna eta bere blokea bestetik, Gerra Hotzaren garai beroenak ziren. Bakearen aldeko eta arma nuklearren aurkako mugimenduetan murgildu beharrez konbentzitu itzuli omen zen etxera.

Ez zen katoliko bakarra horretan. 1965eko azaroaren 9an New Yorken, Nazio Batuen egoitzaren atarian, 22 urte baizik ez zeuzkan Roger Allen

LaPorte lurrean eseri zen budisten eran, gorputza igurtzi gasolinaz eta bere burua sutu zuen. Gaztea biharamunean hilko zen, galdu gabe konorterik; zergatik egin zuen galdetutakoan erantzun zuen: “Langile katolikoa naiz. Gerraren kontra nago, gerra guztien kontra. Erlijiozko ekintza da egin dudana”. Haren hiletan esandako sermoiatatik, jesuiten nagusiak behartu zuen Dan sei hilabeterako AEBetatik kanpo ibiltzera.

1967an atxilotu zuten lehenbizikoz, Pentagono aurrean zientoka ikaslerekin gerraren kontra manifestatzeagatik. “Espetxean jantzi ditut lehenbizikoz *jeans* galtza eta alkandora, apaiz barentzako egokiak iruditu zaizkit” idatzi zuen. 1968ko otsailean Ipar Vietnamera bidaiatu zuen Howard Zinn historiagilearekin, hiru militar yanki askatuta etxera ekartzeko. Viet Congekin biltzeko zain zeudela Hanoi, AEBetako hegazkinen ohiko bonbaketa bat probatzea egokitu zitzaion bertan.

1969ko maiatzaren 17an, Martin Luther King hil eta sei astera burutu zuten akzio mediatikoa, *Catonsvilleko bederatzien* protesta: ekintzaileak, tartean Berrigan anaia, soldaduak errekrutatze bulegoetan sartu, langile harrituen aurrean paperak hartu eta atarian su eman zieten gerrara deitutako mutil gazteen zerrendei, etxean egindako napalm sinbolikotan kiskaliz.

Ekintzaren aldarrikapenezko orrian idatzi zuten: “Barkamena eskatzen dizuegu, lagun onak, ordena urratu dugulako,



paperak erre ditugulako umeak erretzeko ordez, diziplina handiko jendeak haserraraziz hilerriaren atarian. Jainkoak lagundu gaitzala, baina beste erremedioirik ez genuen (...) Salatzen ditugu eliza katolikoa ere, eta beste eliza kristauak eta sinagogak, isil eta koldar daudelako gure nazioaren krimenen aurrean”.

Udazkenean epaitu zituzten, hiru egunez mundu osoko prentsa erakarri zuen auzian. Beranduago Gregory Peckek hartan giroturik egingo zuen *“The Trial of the Catonsville Nine”* filma. Bi urteko zigorrera kondenaturik, Danek erabaki zuen bere burua ez entregatzea. Lau hilabete iraun zuen sasia, AEBetako Ipar-Ekialdeko hainbat herritan behin eta berriro azalduz, batean hitzaldia, bestean elkarriketa, FBIk atxilotzea lortu zuen arte.

Bakea ze maitatu erdizka

Dan Berriganek presondegiko 18 hilabeteko bizipenak *“Lights on in the House of the Dead”* (Argiak hildakoen etxean) bildu zituen eguneroko moduan. Poeta gisa oso ezaguna, genero ezberdinetan denetara 50 liburu argitaratu zituen.

Gerraren aurkako eta bakearen aldeko lana honela laburbildu zuen bere liburuetakoa batean: “Bakegile deitzen diogu gure buruari, baina denbora luzaz ez gara prest egon ordain handirik pagatzeko. Horregatik darrai gerrak, bakea maite dugulako bihotzaren erdiarekin eta biziaren erdiarekin, ez osoarekin. Ez dago bakerik ez dagoelako bakegilerik.



Thomas Goodek 2006an ateratako argazkian, Daniel Berrigan apaiza beste ekintzaile batekin atxilotuta ateratzen dute AEBek Nazio Batuetan daukan egoitzatik. 1965ean aurkeztu ziotelarik bilera batean Robert McNamara Defentsa Ministroa, Berriganek galdetu omen zion: "Gerra ez duzunez geldiarazi goizean, pentsatzen nuen ea gaur gauean geldiaraziko duzun". Eta gerraren arduradunak arrapostu: "Begira, hau daukat esateko Aita Berrigani eta hemengo guztiei: Vietnam Mississippi bezalaxe da. Ez badute obeditu behar legea, tropak bidali behar dizkiezu". 40 geroago zioen apaizak: "Far Westeko sherif izpiritu horrekin ari ziren gerra hura egiten, horra..."

Ez dago bakegilerik bakea egitea delako gutxienez gerra egitea bezain garestia, zaila, asaldatzailea; bakea egiteak eraman zaitzakelako uberan presondegira eta heriotzara eta desgraziara".

1972an berriro auziperatu zituzten bi Berrigan anaiak, zergatik eta Henry Kissinger Estatu Idazkaria bahitzea antolatzeagatik, azkenean libre uzteko.

1980ko irailaren 9an bi Berrigandarrak eta sei ekintzaile gehiago sartu ziren General Electric multinazionalak armadarentzako misil nuklearrak egiten zituen usinan, Pennsylvania, eta mailuka matxuratu zuten bat, jakinda barruan ez zeramala zama atomikorik. Ekintza gero filme bihurtuko zen "King of Prussia" -General Electricen fabrikak izen hori zeukan- tituluarekin.

"Goldeak" (Plowshares, ingelesez) deitu zioten ekintza hari, Isaias profetak

duela 2.800 urte esandako iragarpenaz oroituta: "Ezpatak golde bihurtuko dituzte eta lantzak igitai. Ez da naziorik nazioren aurka altxatuko, ez dira gehiagoko gudurako prestatuko".

1980ko hamarkadan kapilau lanetan aritu zen behartsuak, kantzerdunak eta hiesdunak zaintzen. 1984an El Salvador eta Nikaragua bisitatu zituen, bertan ezagutzeko AEBen armadak sustatu gerrak eragindako kalteak. 1985ean Roland Joffe zinegileak Kolonia, Paraguai eta Argentinara eraman zuen "La Mission" film gero hain famatua izan den hartan aholku eman zezan.

2001ean, 80 urte betetzen zituen egunean, galdetu zioten ea noiz etsi behar zuen: "Geldituko naiz, bai, baina ez hil ondorengo biharamuna arte". 2006ko argazki batean ageri da, apaiz jantziz, gurutzera golkoan, polizia ba-

tek eskuak lotzen dizkiola Armadaren Manhattaneko museo baten atarian. Eta azkenetako irudiak, 2012koa, erakusten du Occupy Wall Streeteko gazteen alde otoitzean.

Amy Goodmanek elkarrizketatu zuten 2006an *Democracy Now* irratirako, amaieran galdetu zion ea gauzak ez ote ziren hobetu haren gazte denboratik, Vietnamgo gerratik, eta Dan zaharrak: "Ez, ez, nire bizitzako garairik txarre-na da hau, benetan. Ez dut sekula ikusi hain koldarki urratzen errespetatu beharreko edozein giza arau. Jende horiek agertzen dira telebistan eta ez idatzitzi eta ez esan gabeko lelo bat dakarte: 'Mespretxatzen zaituztegu, zuek, zuen legea, zuen ordena, zuen Biblia, zuen kontzientzia, dena mespretxatzen dugu. Eta behar baldin bada hil egingo zaituztegu hori erakusteko'". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Jose Mari Ustarroz

Idiazabal Jatorrizko Izendapeneko lehendakaria

«Jatorrizko izendapenek ematen duten babesaren aurka egitea, gure betiko bizimoduaren aurka egitea da»

Aurten 49. aldiz egingo den Artzain Egunaren antolatzaile nagusia da Ustarroz, hasiera-hasieratik. Honetaz gain Idiazabal Jatorrizko Izendapeneko lehendakaria da. Bizitza osoa darama artzain eta gaztagileen lanaren balioa aldarrikatzen eta ezagutzera ematen, bera artzain izan gabe.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Gerra amaitu zen urtean jaioa zara. Nola-koa izan zen zure haurtzaroa?

Oso gogorra. Nire aita hemengoa zen, Uhartekoa eta senideetan gazteena, horregatik 12 urterekin etxetik atera behar eta hainbat etxetan morroi hasi zen lanean. Gero, Bilbotik Mirandarako trenbidean lanean ari zela, bagoneta batek harrapatu eta hanka moztu zion. Sendatu zelarik Beasainen zegoen hemengo familia batengana joan eta haiekin bizargin ofizioa ikasi zuen. Herrira itzuli eta alkateak *alminte* edo aguazil izendatu zuen, baina 36an dena aldatu zen. Uztailaren 18an alkatea, bere semea eta semearen lagun bat eramane zituzten eta oraindik ez dakigu non dauden haien gorpuzkiak. Nire aita ere errepresaliatua izan zen. Oso gaizki pasa zuen. Gerra hasi orduko aguazil-lanik gabe gelditu zen eta bizargin moduan ere oso lan gutxirekin. Jendea ikaratuta zegoen, etxetik atera gabe. Gose ikaragarria pasa zuten. Nik bi anai-arreba izan nituen. Arreba justu-justu ezagutu nuen, baina anaia ez. Biak hil ziren. Amak esaten zuen bezala, “gerrako miseriak eramane zituen”. Nire ama pena horrekin joan zen. Eta

beldur handiz, gainera, bizi ziren urte haietan. Urte eta erdiz goizeko hirurak arte lorik egin gabe egoten ziren uste zutelako atea jo behar zutela, “orrazia estuago” pasa behar zutela esaten zen eta. Bestalde, aita oso eskertuta zegoen hemen egon ziren legionario guztiak berarengana joaten zirelako bizarra eta ilea moztera. Horiek joandakoan, guk hemen jarraitu genuen gosea pasatzen. Sei urterekin hasi nintzen aitari laguntzen. Miseriak pasa genituen. Hemengo eskola ere penagarri zegoen urte haietan. Maisu onak bidali egiten zituzten eta ez zegoen ezer egiterik.

San Migelera nola iritsi zinen?

11 urte nituela San Migelera joateko aukera sortu zitzaidan. Garai hartan han lanean ari zen nire lehengusina batek esan zigun Don Inozenzio Aierbe kapilauak mutil bat hartu behar zuela eliz-mutil. Gurasoek pentsatu zuten han ongi elikatuko nindutela eta ikasketen aldetik hemen baino hobeki egongo nintzela, beraz hara joan eta zazpi urtez gelditu nintzen. Eskolak hartzen nituen, liburutegi oso ona zegoen, eta denetarik ikasi nuen, baita gazta egiten ere.

Urte horiek pasatutakoan herrira itzuli behar izan nuen, gaixorik zegoen ama zaintzera eta etxetik gertu zegoen lantegi batean hasi nintzen. Han 45 urte egin dut, besterik ez! Torlojugintzako fabrika zen. Arduraduna ere euskalduna zen eta oso ongi moldatzen nintzen. Gero eta gehiago saltzen hasi ginenez, salmenta arduradun izendatu ninduten. Horretan aritu nintzen merkatu nazionallean, baita munduan barna ere.

Artzaintza eta gaztagintza, zaletasuna?

Bai. Guk etxean inoiz ez dugu ez abere-rik ez lurrik izan, baratzea salbu. San Migelen harreman handia izan genuen artzainekin. Ahal genuen guztietan laguntzen genien eta haiek guri berdin. 1956ko otsailean, adibidez, Uztegiako bi artzain salbatu genituen. Izugarritzako elurtea izan zen eta gau hartan hemen inoiz ezagutu dugun hotzik handiena egin zuen: 25 gradu zero azpitik. Elurrak harrapatuta gelditu ziren artzainak. 16 urte besterik ez nituen eta don Inozenzio, Joxe Zufiaurre Aralarko zaindaria, Felix Etxabarri urdiaindarra eta lauok eskiekin eta erreskate txakurrekin haien bila joan ginen. Gu atera izan



Jose Mari Ustarroz

1939, Uharte-Arakil

Heldu den urtean 50. edizioa beteko duen Artzain Egunaren bultzatzaile nagusia da, Idiazabal Jatorrizko Izendapeneko lehendakaria eta Aralarko San Migelen kofradiako lehendakaria. 56 urtez bertako kapilaua izan zen, don Inozentio Aierbe apaiz ezagunaren gertuko laguntzailea, haurra zenetik. 45 urtez lantegi bateko salmenta arduraduna izan ostean, erretiroa hartuta dago eta "inoiz baino lanpetuago". Hiru alabaren aita da.

ez bagina, akabatuko ziren. Hura izan zen larriena, baina askotan ibili gara jendeari laguntzen mendian.

Nola hasi zineten Artzain Eguna antolatzen orain dela 49 urte?

Penintsula osoan lehenbiziko artzain txakur lehiaketa egin zen Gironan, Ribes de Freser herrian. Hango albaiariak antolatu zuen lehen txapelketa hura, Ingalaterran ikusitako baten antzera. Oñatiko mendigoizale batzuk hura ikusi eta pentsatu zuten egokia izan zitekeela Euskal Herrian egiteko. Handik urtebetera antolatu zuten lehen nazioarteko txapelketa. Oñatiko mendizale horietako asko Aralarra etortzen ziren eta Uharteko Udalarri proposatu zioten Nafarroan ere lehiaketa egitea Oñatiko lehiaketarako eta Durangon Gerediaga elkarteak egiten zuen Euskal Herriko txapelketarako sailkatzeko balioko zue-na.

1963an zen egitekoa lehen aldiz, baina bezperan sute ikaragarria izan eta hoge minutuan herriaren laurdena erre zen. Urte batzuk geroago, 1967an, Aralarra Elkarrekin hasi zen artzain txakurren lehiaketa antolatzen. Hasieran pentsatzen genuen jendea bizpahiru urtez etorriko zela eta gero ez zuela jarraituko. Baina kontrakoa gertatu zen.

Zergatik egiten da egun hori?

80ko hamarkadan pentsatu genuen hemengo gaztagileekin zerbait egin behar genuela, laster Europako mugak erori eta toki guztietako gaztak etorriko zirela uste zelako. Garai hartan Nafarroako Gobernuak gaztagileak asko estutzen zituen arauen bidez. Osasun erregistroa eskatzen zieten, eta laguntza edo baliabiderik batere ez. Hori dela eta ikaraturik bizi ziren. Kanpotarrek marketing hobia izango zuten gainera eta hemen ez zutela egiteko ezer izango uste zuten.

Horregatik, ardi esnez eginiko gaztaren balioa aldarrikatzeko lehiaketa egitea erabaki genuen. Lehen urtean Diputazioarengana joan ginen laguntza eske eta kasik mehatxatu egin gintuzten. Eskerrak hemengo alkateak gure alde egin zuten irmoki.

Pentsa zer nolako beldurra zuten gaztagileek, lehiaketa aurreko gauean telefonoz ibili behar izan genuen denak konbentzitzen etortzeko, esanez ez zitzaiela ezer gertatuko. Pentsatzen zuten hona etorri orduko isuna jarriko zietela

Aralar

Aralar gainean zelai bat dago eta aurten indusketak egiten hasiko dira. Betidanik oso toki garrantzitsua izan da. Monumentu megalitiko asko dago eta hortik ere Donejakue bidea pasatzen zen Bordele eta Astorga lotzen zituen bide erromatarretik. Harri horietan dagoen espiritua uste duguna baino sakonagoa da.

eta ia-ia kartzelara eramango. Argi ikusi genuen lagundu egin behar genielako, hemengo gaztagintza betiko desagertzea nahi ez baguenen.

Bigarren urtean ardi latxaren erakusketak egin genuen ideia berarekin: hemengo arrazak babestu kanpokoen aurrean. Poliki-poliki lehiaketa gehiago egin ziren: ardikiena, ardi ile moztailena... Orain egitarauan, eta plazan, ez da gehiago sartzen!

Eta Idiazabal izendapeneko kontseiluan nola hasi zinen?

Artzain Egunarekin eta gazta txapelketarekin hasi eta hortik harrapatu ninduen Idiazabal Jatorrizko Izendapena abian jartzeko.

80ko hamarkadan erabaki zen jatorrizko izendapen bat, kontseilu erregulatzaile bat egin behar zela artzainei beren lanbidea errazteko. Egia esan, kosta egin zen abian jartzea. Izenaren inguruan ere proposamen desberdinak ziren: Urbasa, Urbia... baina merkatu ikerketa egin eta ikusi zen hemendik kanpo gehien ezagutzen zen izena Idiazabal zela. Toki estrategikoa izanik, bisitari



asko pasa da eta han Urbian, Aralarren, Urbanan eta Andian egindako gaztak saldu izan dira aspalditik. Horregatik aukeratu genuen Idiazabal izena. Beraz "Idiazabal gazta" gaizki esana dago. Gurea "Idiazabal gazta" da. 1987an abian jarri zen kontseilua.

Jatorrizko Izendapena Europak babestua da. Horrek ez du esan nahi dirua ematen digutenik, baizik eta beste inork ezin duela gure izena erabili.

TTIP Atlantikoz bi aldeetako itunak mehatxu berriak ekartzen ahal dizkie Europako jatorrizko izendapenei. Kezkatuta zaudete?

Bai, hala da, eta babes hori oso beharrezkoa da. Gure gazta ardi latxaren esnez egiten da. Ardi hori hemengoa da eta oso garrantzitsua da bere eragin soziala. Hemen ez dago makro artalderik. Hemen denak ekoizle txikiak dira. Familia edo baserri bakoitzak badu bere artaldetxea. Horrek esan nahi du Euskal Herri heze osora zabaltzen dela gure marka. Ardi latxa dagoen tokietan daude gure gaztandegiak. Beraz jatorrizko izendapenek ematen duten babesaren



“Industrializazioaren aldeko joera orokortuaren kontra, gurean gero eta gaztagile txikiagoak ditugu eta gainera jende gaztea sartzen ari da”

aurka egitea, gure betiko bizimoduaren aurka egitea da.

Zenbatekoa da Idiazabal gaztaren ekoizpena?

1.227.000 kilo egin genuen iaz. Tamaina desberdineko 122 gaztagile ditugu. Proportzioan artzain eta gaztagile gehien dauzkagunak gara munduan. Industrializazioaren aldeko joera orokortuaren kontra, gurean gero eta gaztagile txikiagoak ditugu eta gainera jende gaztea sartzen ari da. Aurten, Nafarroan, hiru gaztagile berri gazte sartu dira. Iaz, aurreko urtearekin alderatuta, %8,2 handitu zen ekoizpena eta aurten ere igoera espero dugu.

Non saltzen da gazta?

Euskal Herrian erdia baino gehiago. Gainerakoa Madrilen, Bartzelonan, Katalunian... Harrera ona du, maite dute gure gazta. Esportazioan ere gero eta arrakasta handiagoa du. Etorkizun oneko lana eta jakia da. Gure kontseilua Europako zorrotzetakoa da eta oso harreman onak ditugu beste kontseiluekin, adibidez Parmesanoarekin.

Merkatuan harrera ona eta sariak ere bai.

Hemen ez dugu behar adina baloratzen. Oraintsu Madrilen izan naiz Gourmet azokan, eta Bartzelonan Alimentaria azokan. Gure artzain batek, Ordiziako Otatza baserriko Joseba Insaustik, han jaso du Penintsula osoko gaztarik onenaren saria Aralarren eginiko gaztarengatik. Gainera, “Euskal Herriko mendiko gazta” bezala aurkeztu zuen Ministerioak. Hori ere garrantzitsua da. Jendeak gero eta gehiago ezagutzen du hemengo gazta eta izugarri estimatzen du. Mantentzen segi behar da.

Aralarko San Migeleko Kofradiako lehen-dakaria zara.

Don Inozentziorekin oso harreman ona izan nuen, duela 15 urte hil zen arte. Gure kofradia oso zaharra da, X. mendeko omen, eta XII. mendean 40.000 kide izatera iritsi zen. Historian zehar eraso asko sufritu du. Abderramanek 924an egindako erasoetan, Aralarko elizaren zati handi bat suntsitu zuela uste dute, adibidez. Gero izarri beltza etorri zen, eta geroago Nafarroako konkista, eta horrek ere bere aztarna utzi zion. Gau-

za jakina da Nafarroako erregeek asko maite zutela Aralar. Historiak dioenez, 1094an eliza berregiten ari zirenean, Petri I.a Nafarroako erregeak harea zakua eraman zuen bizkarrean hartuta, eskaintza egiteko.

Urte luzetan kofradia gainbeheran izan zen, XX. mende hasieran Mariano Arigita, katedraleko txantrea zena, berpizten saiatu zen arte. Ez zuen lortu, baina lekukoa don Inozentziok hartu eta asmoa burutu zuen. Nik lagundu nion estatutuak eguneratzen eta dena abian jartzen. 1999an hasi ginen eta hasieratik lehendakari izendatu ninduten. Egun 1.500 kofradiakide gara.

Don Inozentzioren esker hasi zen ETB ikusten Nafarroan duela 30 urte, ezta?

Paz de Ziganda ikastola inguruko batzuk prestatu zuten dena eta baimena eskatu zioten Aralarren antena jartzeko eta berak baietz esan zuen berehala. Erabaki oso ausarta izan zen. Bere bizia hainbat aldiz jarri zuen arriskuan isil-isilik herri honen alde borrokatzen, eta behin ere ez ziren sartu berarekin. Zerbait berezia zuen gizon horrek.



Erretaulako esmalteek ere beren historia dute.

Esmalteak munduko onenak dira, baina inork ezingo lituzke saldu oso ikertuta eta oso ongi katalogatuta daudelako. 1979an Erik belgikarrak lapurtu zituen, baina gaizki atera zitzaion Interpolen esku utzi zutelako afera eta segituan harapatu zuten.

Ia mila urte dira erretaula han dagoela eta egin zen garaian bezala dago. Duela hamar urte, Baluarte kongresu eta erakusketa gunera eraman zuten gure iritziaren aurka. Hara eraman zuten, tenperatura eta hezetasun datuak biltzen dituen erregistroak izugarritzko gorabeherak erakutsi zituen. Oso kaltegarria da, eta erretaula toki batera eta bestera eramateko eskatzen hasi zirenean, ezetz esan genuen. Mila urte bikain gorde dena hamar urtean hondatu behar dugu? Ikusi nahi duena Aralarre-er etor dadila.

Sakanan langabezia tasa Nafarroako altuena da. Nola ikusten duzu hemengo etorkizuna?

Metalurgiarekin gehiegi lotua egon da hemengo industria. Ez genuen behar adina dibertsifikatu. Krisiaren ondo-

ren gure ekonomia berriz altxatzea zaila izango da, baina toki onean gaude eta bide berriak zabaldu beharko ditugu. Metalurgiaz gain bestelako industriak eta zerbitzuak eratu behar dira. Horrez gain, nik beti esaten dut emakumeek gehiago parte hartu behar dutela lan munduan. Nik lan egiten nuen enpresan 100 bat langile izatera iritsi ginen, haietarik 37, emakumeak. Egiten zuten lana kalitate handikoa zen. Beti faltan bota izan dut emakumeen parte-hartze handiagoa produkzioan. Beharrezkoa da. Artzaintzan ere ezagutzen da emakumeen parte-hartze positiboa. Emakume bat integratzen bada etxalde edo gaztandegi baten antolaketan, hori aurrera aterako da zalantzarik gabe. Familia osoan eta negozioan nabari da eta berarentzat ere oso garrantzitsua da bere autoestimurako. Artzainaren emaztea izan edo etxeko artzain edo gaztagilea izan ez da 360 graduko bira, hirukoitza, baizik! Gainera, inguruan lanpostuak orekatu behar dira gizon eta emakumeen artean herrietako bizitasuna mantentzeko, bestela zer? Gizonak hemen lanean eta emakumeak Iruñera lan bila? Hori ez da bidea herriak bizirik mantentzeko. ■

Dorleta auzoa, z/g.
20540 ESKORRIATZA
Tel.: 943 71 41 57
<http://mukom.mondragon.edu/lanki>

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 591 200
www.kontseilua.eus

**euskaraz
bizi
nahi dut**

Ametzagaina Kalea 19
20012 Donostia
Tel.: (+34) 686 72 88 43
(+34) 652 731 304
harremanak@joxemizumalabe.eus

Venezuela plaza 1 - 2 ezk.
48001 BILBO
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

Kapitalismo berdea

Aldaketa klimatikoa, itsasoen kutsadura, petrolioaren eta natur baliabideen agortzea, lurraren nariadura hazkorra, hondakinaren kontrol gabeko barreiaketa, eta abar luze baten aspaldian erakusten dute ekonomia eredu desarrollistak –izan neoliberala, keynesiarra edo planifikazio zentralakoa– planeta hondamendira daramala.

Kapitalismo berdearen leloa oximoroma izan arren, etorkizun hurbileko erroka ekologikoak behartuta, elite politikoak eta ekonomikoak iraunkortasunerako estrategiak eta ekimenak hedatzen ari dira. Bere ondorioak aurreikusi ezinak diren arren, TTIP edo antzeko itunek horren oztopo direla ahaztu gabe, kapitalismoaren garapen eredu berri baten ateak zabal ditzakete jarraian azalduko ditudan bi estrategien moduko lerroek.

Europar Batasunean ekimen multzo bat hartu berri du Europako Batzordeak zuzentarau gisa “ekonomia zirkularra”-ren eremuan. Neurrien motibazioa da aipagarria, izan ere, lehen aldiz onartzen du Batzordeak “hartu, erabili eta bota” kulturen oinarritutako eredu produktiboa jasanezina dela. Horri aurre egiteko “ekonomia zirkularra”-ren oinarriak hartzen ditu aintzat: “Sehaskatik sehas-kara”-ko ideia da nagusia eta hondakinak baliabide bihurtzen dituen ekonomia produktiboaren ikuspegia akuilatzen du. Bistakoak lirakeke eskema horren abantailak guztientzat: natur baliabideen erabilera hobea, kutsadura gutxitzea, kostuen aurrezkia eta diseinu ekologikoak zein produktu ugariaren berrerabilpena eta birziklapena tarteko enpleguaren sorrera. Neurri hauek martxan jartzeko egitasmoa zehaztu egiten du Batzordeak. 2020 Horizontea programaren kontura 650 milioi euro daude aurreikusita eta beste kopuru zabalagoa tokiko ekimenetara bideratzen diren Fondo Estrukturalen bizkar. Praktikan udal zein



Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Euskal lurraldeen artean gehien birziklatzen duen herrialdea Gipuzkoa da %42,3 markarekin, duela bost urte abian jarritako birziklatze neurrien emaitza itzaropentsuak agirian utzita. Europako esparru berriak neurri horietan sakontzea eskatzen du, hala azken urtean arlo horretan tamalez galga ipini duen Gipuzkoan nola gainerako herrialdeetan ere

tokiko gobernuek helburu jakin batzuk bete beharko dituzte. Esaterako, 2030 urterako udal hondakin guztien %65 birziklatu beharko da. Euskal lurraldeen artean gehien birziklatzen duen herrialdea Gipuzkoa da %42,3 markarekin, duela bost urte abian jarritako birziklatze neurrien emaitza itzaropentsuak agirian utzita. Europako esparru berriak neurri horietan sakontzea eskatzen du, hala azken urtean arlo horretan tamalez galga ipini duen Gipuzkoan nola gainerako herrialdeetan ere. Halaber, lizitazio publikoetan erosketa publiko berdeen irizpideak hartzea eskatzen du zuzentzarauak. Euskal Herrian udal mailako ekimenak egon badauden arren, oso gutxi eta urriak dira oro har.

Europako Berdeen taldeak ere ekimen berri bat aurkeztu du ekonomia berdea hedatzeko xedearekin. *Diru berdea* txostenaren bitartez Europako Banku Zentralaren (EBZ) diru pizgarrien bidezko politikak ekonomia berdea finantzatzeko praktikak indartzeko erabiltzea eskatzen dute. Gaur egungo diru politikaren bidea modu pragmatikoan erabiltzea da gakoa, trantsizio berdea eta ekonomia krisia nolabait bateragarri eginda. Deshazkundearen biderei heldzea baino diru politika eta politika fiskala trantsizio berdea diruz laguntzea lehenesten da, horrela enplegua sortuko litzateke eta krisiaren irteera erraztu.

Gaur egun, EBZk diru kopuruak bideratzen ditu titulu publikoak eta pribatuak erosteko, baina politika horrek ez du diskriminatzeko erosten dituen aktiboaren artean, beraz, batzuetan jarduera kutsagarriak eta jasangaitzak ere finantzatu ditu. Inbertsioetarako Europar Bankuak kudeatuko lukeen fondo berde bat sortzea da diru politikaren hedakuntza egoki bideratzeko aukera bat. Teknikoki konplexua den arren politikoki helburu argia du: proiektu berdeen finantzaketa bermatzea. ■

Eskandalu

Diglosia kulturala dela medio, baten batek pentsa lezake **Raphaelen** kantari espainiarraren abesti famatuaz ariko naizela. Bada ez. Erakundeen euskararekiko jokaeraz arituko natzaizue, ene aburuz eskandaluzkoa izatera heldu baita.

Izan ere, neure borroka daramat haiekin. Legeak edozein erakunderekin harremanetan jartzeko nahi dudan hizkuntza ofiziala erabili ahal izatea ustez aitortzen didan arren, euskara hautatuz gero, beti egiten dut topo trabaren batekin erakunde orotan, salbuespenik gabe: Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritzza, Bizkaiko Aldundia...

Batzuetan norbanako moduan aritzen naizenean gertatzen zait, beste batzuetan elkarre baten izenean, baita laneko kontuetan ere. Ohiko arazoetako bat izaten da nik agiri bat euskara hutsean aurkeztu eta haiek erdara hutsean erantzun, indarrean dauden legeak hautsiz eta nirekiko begirune falta adieraziz.

Baina badago beste kontu bat, zeharka bada ere, hiritar euskalduna naizen aldetik etengabe eragiten nauena: erakundeen funtzionamendua bera. Esan nahi baita, erdara hutsez funtzionatzen dutela gehienek, eta horrek ondorio latzak dituela euskaldunongan. Askotan inprimaki edo agiri batzuk ez dira exis-



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Edukia, gorabeherekin bada ere, gustukoa izan nuen; hizkuntzen erabilerak, ordea, eskandalizatu egin ninduen. Nabaria zen kanpaina erdaraz pentsatutakoa zela

titu ere egiten euskaraz, eta, badaudenean, ia beti erdarazkoaren itzulpena baino ez dira. Eta nabaritu egiten da, ulertzea bera ia ezinezkoa izaten da-eta.

Diodan hori oso modu argian ikusten da argitaratzen duten publikitatean ere. Azken adibidea Bizkaiko Diputazioare-

na izan da, maiatzaren 17ko homofobiaren kontrako kanpaina hain zuzen. Proiektu-fasean ezagutu nuen kanpaina, kasualitatez. Edukia, gorabeherekin bada ere, gustukoa izan nuen; hizkuntzen erabilerak, ordea, eskandalizatu egin ninduen. Nabaria zen kanpaina erdaraz pentsatutakoa zela. Bost kartel eta bost lelo diferente zeuden, baina denek zeukaten zerbait komuna, nolabait kanpainari batasuna ematen ziona: denak hasten ziren “*también*” berbaz. Euskaraz ere egitera behartuta zeudenez, jakina, norbaitek itzuli beharko zituen lelook. Eta horra nire sorpresa: “itzulpenak” (nolabait deitzez) astakeria gramatikalen bat izateaz gain, berezi samarrak izateaz gain... ez zeukaten ageriko elementurik elkarrekin, eta batasun horren falta zela-eta, kanpainaren eraginkortasuna galtzen zen hein handian. Gauzak horrela, ezin erreprimitu, eta e-maila bidali nien arduradunei kanpainaren batasuna errespetatzen zuten itzulpen itxurosoak proposatuz. Zorionez, kasu egin didate, eta neuk eginiko itzulpenak dira kartel-bideoetan ikus daitezkeenak. Uste dut badela garaia erakundeek publikitate-enpresei exijitzeko euskaraz ere lan egin dezatela. Oraingoan neuk egin diet-eta lanaren parte bat. Eta ez dut kobratu! ■



Liburu azoka

Bilbon, ekainaren 2tik 12ra Arenalean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Elkarri esku emanda!



Iñaki Murua
IRAKASLEA ETA
BERTSOLARIA

Bi urteko ibilbidea ia amaitu duzue. Animo eta zorionak! Baita bi, hiru eta lau urtez jardun duzuenoi ere! Nork du bada meritu gehien, bi urtean bukatu duenak ala lau urte lanean jo eta ke aritu eta azterketara aurkeztu denak?

Espainiako Itzulia irabazi eta Langarika txirridulariak diru asko saritan jaso zuela esan omen zion aitonari bilobak; eta aitonak bai azkar asko ulertu ere: "Alde ederra zagok. Horri bizikletan itzulia egiteagatik dirutza hori eman ziotek eta guri, itzuli osoa oinez frankisten balen eta obusen ihesi egin eta, kartzela sari. Handik *trabajadores*etara *borondatezko* (!?) *lanak* egitera. Hori izan huen gure saria. Gu gorriak? Guk bai ikusi genizkian gorriak!".

Batxillerreko ikasleak ere antzera ikusten ditut: batzuk kabitu ezinik lortu dutelako; beste batzuk azken ahaleginaren faltan, hatz punttekin ia ukituan eduki dute pasaporte eta ihes! Bada beste multzo bat ere, azken saialdi serioa egin beharrean gertatu dena. Zail dauka ikasle ekiporrek, ez du gaiak ulertzeko eta lantzeko baka-rrik behar bultzada, ez, beren buruan eta gaitasunetan sinesteko besarkada behar dute. Hemen gauzkatela behar dutenerako sentitu behar dute. Baina askotan, gogorra baita emaitza negatiboen aurrean aurpegia ematea, notak banatu ditugun egunean eta zalantzak argitzeko eske, gure ikasleak negar zotinka daudenean, ezkututzen gara aitzakia inuzenteren baten atzean.

Ez da erraza, ez. Egoera hauetan, nerabe eta gazte batzuen tonua, hitzak eta moduak ez dira

aproposenak. Baina, guk jakinarazi behar diegu ezegoki ari direla, guk transmititu behar diegu zer den egoten jakitea! Baita gurasoei ere! Ikasleen erreakzio neurrigabeak edo lekuz kanpokoak, egoera bideratzen erakusteko aukera bihurtu behar dira. Nor bere onetik atera gabe esan behar dena esateko eta entzutea dagokiguna entzuteko entrenamenduak ez du parekorik bizitzan!

Ia dena telefonoz eta whatsapppez egiten ohitu gara. Tutoreok eta ikasleen gurasoek, elkarri aurpegira begiratu gabe trukutzen dugu informazioa. Egoerak edozer esateko abagunea eskaintzen du, baita errespetua eta neurriak galtzeko ere, eta zenbat presio jasaten dugun gurasoengandik! Ez du ezerk balio zenbaitentzat, ez tutoreak kurtsu osoan emandako latak egoera ongi bideratu nahian; ez jarrera aldatzeko aholkuek; ezta emaitza eskasaren aurrean azaldutako kezak ere, ez nahiko dagoen lekuan nahikoa ikustea dute helburu bakar.

Egoera horietan bakoitza dagokigun mailan egoten ahalegintzeak, eta ahal bada asmatzeak, eredu bateratua ematen dio ikasleari. Ate guztietan berdin erantzun diote: ebaluazio taldeak, irakasleek, tutoreak, gurasoek. Horra bi lezio batean, heziketa komunitateko ordezkari guztiek iritzi bera dute. Ez dago nahasmenik, aho batez ari dira diagnosis egiten eta hartutako erabakia arrazoiz adieraziz. Ez dago beste biderik, denek bera diote eta hor dago gakoa! Onartu epaia dagoen horretantxe. Alferrik da zirrikitu bila hastea! Eskuz esku eta esku guztiek batera, noranzko berean indarra eginez bideratuko dugu etorkizuna. Denon eskuak behar! ■

Born in the Euskal Herrian



Itxaro Borda
IDAZLEA

Egun bat gehiagoko urtea dugulako edo, aurtentzen gauza bitxiak gertatzen dira hemen, burua galdu bagenu bezala: iruditzen zait leize hegian dantzan gabiltzala, erortzeak, diskurtso zaharkitu diglosikoeak eta historiaren ikuspegi geldotuek zorabiatzen gaituzten bitartean.

Neokarlistak eta neoaskatasuna aldarrikatzen duten abertzale apurrak jendetza minberarekin jolasten dira. Borroka hitz errepikatuak zainetara isurtzen digun adrenalina premiazkoa dugu, alabaina, bizirik garelako sentitzeko. Badakite hargatik ez dela urratsik aitzinera eramango iraganeko mamuak eta piztiak, gure baitan, urkatu gabe.

Orduan jakinen da, zinez, autokritika elearen erran nahi zehatza.

Kartzelatik ateraz geroztik, Nelson Mandelaren paperean urtzen doan Arnaldo Otegi estatu dezente aurrerakoi honen egiazko lehendakaria bailitzan hartu du Kataluniako Parlamentuak. Ondotik, *incognito*, *La Riera* jatetxera gonbidatuzen Claudius eta Lidiarekin afaltzera.

Euskal Herrian jaio izatea ez da beti oparia –ardurenean bai ordea, lasai...–, baina argi daukat sinisgarri zaidan independentzia aipamen bakarra Bruce Springsteen *Independance Day* kantak dakarkidala. ■

Burujabetza hautestontzietan

HERRIEN TXANDA DA

Dena doa azkar gaur egungo munduan. Hiru urte dira Gure Esku Dago sortu zela 2013ko ekainean eta 2016ko ekainaren 5ean burujabetza eta independentziari buruzko lehen galdeketak egitera doaz Euskal Herriko 34 herritan. Zer girotan dator kontsulta? Zein emaitza izango ditu? Eta 2018a eta gero zer?



Xabier Letona
@xletona

Hiru urterako aurreikusitako prozesua da Gure Esku Dago elkarteak bultzatutako hau. 2017an eta 2018an ere ahalik eta galdeketa gehien egingo ditu, "herritarrak aktibatu eta galdeketa egiteko behar diren baldintzak sortzeko". Hori dio bederen, 2015eko azaroan onartutako *Eskura* agirian.

Kataluniako independentzia prozesuaren berora sortua, hango 400 kilometroko pertsona kateak ekarri zuen Durango eta Iruñea lotu zuen 123 kilometroko herritarren katea: 150.000 lagun eskutik helduta euskal herritarren erabaki eskubidea aldarrikatuz. Euskal Herriko historian eskaera honen alde inoiz egindako mobilizaziorik handi eta ikusgarriena izan zen.

Ezaguna zen, baina hark oso modu argian ikusarazi zuen Euskal Herrian bazela erabaki eskubidearen aldeko sustarai sakona. Gainera, abertzaletasunetik haragoko jende esanguratsua igo zen olatu haren gainera. Baina Gure Esku Dago bazuen bere aparretan itozteko arriskua eta ondorengo bi urteak ez dira errazak izan, hainbat konturengatik.

M15 eta krisiaren eragina

Mobilizazio erraldoien ikuspegitik, 2015eko ekaineko bost hiriburuetako ahaleginak erakutsi zuen lehen harresia. Bat, jende asko bai, baina helburua ezin gaintitu; bi, abertzaletasunaren hainbat esparrutan sentipen hotza utzi zuten ekitaldiek. Katalunian ez bezala,



erabaki eskubidearen edota independentziaren mezuek bazuten hainbat arazo gizartean grina pizteko. Seguruenik, 2015eko hauteskundeetan EH Bilduk EAEn izandako porrotak ere izango zuen eraginik, gizarte esparru hori izan baita independentziaren alde gehien mobilizatu ohi dena.

Euskal Herrian ere, bai Kataluniaren eraginez eta baita 2008tik aurrera bizi den krisi gogorraren bultzadaz, independentziaren kontzeptua eraldatzen ari da. Esan liteke, gizarteko gero eta sektore zabalagoentzat independentziaz erabakitzea bezain garrantzitsua dela eguneroko arazoan ganean erabakitzea: etxebizitzaz, azpiegiturez, ekonomiaz, zergez, genero berdintasunaz...



Zumarraga eta Urretxuko herritar talde batek ekainaren 5eko galdeketan parte hartzera deitu zuten unea.

OTAMOTZ

- » Pertsona katearen ondoren, Gure Esku Dagok bazuen bere aparretan itotzeko arriskua eta ondorengo bi urteak ez dira errazak izan
- » Autogobernu lantaldearen emaitza ezer gutxitan geratu da, kontsultaren agindua ez du bete Urkullu lehendakariak eta ezker abertzaleak nahiko lan du bere burua gobernatzen
- » Edozein modutan, unean unekoa: milaka euskal herritar erabakitzera doaz eta hori, printzipioz, urrats berritzaile eta erraldoia da

eta hori bereziki gertatzen da gazteen esparruan. Alor honetan ere, M15aren eragina esanguratsua izan da. Erabaki eskubidea arropa horiek guztiekin jantzi beharko da berez erabaki zale edota independentistak diren sektore asko galdeketen olatu hauetara erakartzeko. Bestetik, teorikoki bederen, M15ak eta Ahal Duguk erabaki eskubidearen esparrua gizendu dute politikoki. Nafarroa izan liteke horren adibide ikusgarriena: nork pentsatuko zuen duela oso gutxi, erabakitzeko eskubidearen aldeko gobernu bat izan behar zuela?

Gehienetan pentsatu izan da Gure Esku Dago moduko ekimenek jeltzale eta ezker abertzalearen arteko zubigintza egin behar zutela, eta hala dela ez da

zalantzarik, baina nork egingo du zubi lan hori Gure Esku Dagoren mezu eta estiloa, eta aipatu sektore gazte –eta ez hain gazte– horien artekoa?

Gizartea eta instituzioak

Erabaki eskubidearen bultzadak ezinbestean behar du gizarte eta instituzioen arteko lotura estua. Zeresanik ez independentziarenak. Katalunian argi ikusi da hori eta hortaz arduratu izan dira lehenengo Erabaki Eskubidearen aldeko Plataforma eta ondoren ANC. Akatsak akats, bide emankorra egin dute han. Hirugarren faktore esanguratsua ere izan dute, Espainiako Estatuaren jarrerera, haren agrabioa. Eta legamia gisa, krisi ekonomiko eta sozial oso sakona.

Hemen inork ez du presio hori egin, ez alderdien gainean ezta instituzioei begira ere. Gure Esku Dagok ez du horretarako indarririk izan oraindik eta asmo publikorik ere ez du agertu, ez behintzat hiru urteko olatu txanda hauetarako agertutako agiri eta asmoetan.

Esparru instituzionalean, agortzera doan legealdiak bazuen txinpartarik Eusko Legebiltzarrean: ETArrik gabeko lehen legealdia 30 urtean; EAJren eta EH Bilduren inoizko nagusitasun handiena; EAJren kontsulta agindua 2015erako; eta Autogobernu Lantaldea abagune berriaren potentzialitate osoa bideratzeko prest. Autogobernu Lantaldearen emaitza ezer gutxitan geratu da, kontsultaren agindua ez du bete Iñigo



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Kaldearte
Lurrak
Kaldealdi, Lurrak eta Kaldearte
Ekainak 10, 22:30, Foru plaza
Baserriko porrusalda
Bapatean
Ekainak 11, 18:30, Sta. Maria plaza
Irrintzi
Organik
Ekainak 12, 13:00eta 19:00, Probintzia plaza

Oihaneder euskararen etxea
Le Dauphine itsasontziaren euskarazko gutunak (1757)
Liburuaren aurkezpena
Xabier Lamikiz & Manuel Padilla
Ekainak 8, 19:00
Zurrunbilo antzerki jaialdia
5 lan laburren erakusketa
Ekainak 15, asteazkena, 20:00
Zer duzu Amy?
Oh my god! antzerki taldea
Ekainak 17, 20:00
Euskara jendea
Azken saioa
Mundua osatzen & Jose Angel Irigaray
Ekainak 21, 19:00
SolasAlean elkarrizketa irekia
Gemma Zabaletarekin
ALEAren elkarlanean
Ekainak 30, 19:00
Gasteiztarrak arraun the world
Udako argazki lehiaketa
Gauekoak-ekin elkarlanean
Ekainak 22 - Irailak 22

Gazte sortzaileak beka
Gazteek gazteentzat sortutako ekitaldi kulturalak
Zertan da beka?
• Ahozko ekitaldi kultural bat sortzeko
• Intereseko arloko tutoretza profesionala
• Beka jaso eta 6 hilabetera ekitaldi estreinatzeko aukera
Notako ekitaldia?
• Antzerkia, bakarrizketa, musika, bertsolaritza, poesia-emanaldia, ikus-entzunezkoa, performancea, diziplinen arteko nahasketa...
• Bakarkakoa edo taldekoa
• Ahozkotasunarekin estu-estu lotua
• Jatorrizkoa edo egokitzapena, euskaraz
• Proiektua azaldu, 2-4 orrialde
• Formatu txikiak hobetsiko dira
Nork eska dezake?
• 16 eta 35 urte bitartekoek
1. kategoria: 16-24 urte
2. kategoria: 25-35 urte
Noiz aurkeztu?
2016ko uztailaren 1era arte
Info+: www.vitoria-gasteiz.org/euskara

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ETXARRI ARANATZETIK BESTE 34ETARA

Aitzindariak

Etxarri Aranatz (Nafarroa).

2014ko apirilaren 13an egin zen Euskal Herrian independentziaren gaineko lehenbiziko kontsulta. Udalak antolatuta, 2013an egiteko asmoa zuten, baina Nafarroako Administrazio Auzitegiak bertan behera utzi zuen, kontsulta egitea udalaren eskumenetik kanpo zegoela argudiatuta. Azkenean herri plataforma batek bideratu zuen eta honako galdera luzatu zen: "Nahi al duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan?". Bozkatze-ko eskubidea zuten herritarren %42,76k parte hartu zuen kontsultan: %94,47k baiezkoa eman zuen; %2,11k ezezkoa eta %3,5ek zuri bozkatu zuen.

Arrankudiaga

(Bizkaia).
2014ko azaroaren 2an egin zuten galdeketa, herritarren Ados Plataformak deituta, Etxarri-Aranazkoa eredu eta honako galderarekin: "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?". Eskubidea zuten herritarren %61,59k parte hartu zuen honako emaitzarekin: bai %89'64k baiezkoaren alde egin zuen; %2,58k ezezkoa bozkatu zuen eta zuri %6,57k.

Hiru urteko prozesua

2015eko ekainean Gure Esku Dagok erabaki zuen 2016 eta 2018 artean herrietan galdeketa bultzatuko zituela Euskal Herri osoan. 2016an 34 herritan egingo dira kontsultak: Gipuzkoako Goierri 23, Debagoienan 8, Aramaion, Azpeitian eta

Ispasterren. Bi galdera egingo dira. Debagoienan eta Azpeitian galdera honakoa da: "Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?". Goierri eta Ispasterren: "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?". Dimak eta Bakaikuk udazkenean egingo dituzte galdeketa. Berez, ekainaren 12an eta 19an egin behar ziren, baina Espainiako ekainaren 26ko hauteskunde orokorrak direla eta datak aldatu dira kanpaina saihesteko.

2017rako aurreikusitako herri edota eskualdeak: Oarsoaldea, Aulesti, Barrika, Bermeo, Busturia, Elorrio, Sopela, Uribe Kosta, Usurbil eta Hernani. Urtean zehar beste herri askok iragarriko dituzte galdeketa. Eta, aurreikuspenak betez gero, 2018an egingo da galdeketa hirugarren olatua.

Protokoloa

Herri bakoitzak erabakitzen du bere galdeketa inguruan, baina Gure Esku Dagok badu protokolo oso zehatza jarraitu ahal izateko. Helburua da beste edozein kontsulta edo hauteskunderen moduko galdeketa egitea, seriotasun eta sinesgarritasunik handiena izan dezaten: nola eratu galdeketa prestatzeko batzordea herrian, kontrol batzordea, mahaiak, boitoak, begiraleak, galderak, lekua, ordu-tegiak, zenbaketa... eta beste hainbat xehetasun dira Gure Esku Dagoren webgunean topa daitezkeen *Protokoloa* dokumentuan.

Urkulluk eta ezker abertzaleak nahiko lan du bere burua gobernatzen. Abertzaleen arteko hegemonia lehian EAJ aise nagusitu ondoren, jeltzaleak eroso daude kudeaketan, Madrilgo gobernu berriaren zain, harekin autobogernu formula berriak lotzeko esperantzan.

Orain kontsultak, eta 2019an zer?

Testuinguru konplexu horretan ari da igeri galdeketa ekimena, herritarren aktibazioan bestelako urrats bat ekarriko duelakoan. Baina hotz sumatzen da giroa, badirudi euskal erabaki zalea gehiago hunkitzen dela Kataluniako galdeketa bertakoekin baino. Inpresio

kontua ere izan daiteke, herrietakoak izanik, sentiberatasun oso desberdina egon bailiteke kontsultak diren herrietan eta gainerakoetan.

Ekainaren 5eko kontsultetan bi galdera motari erantzun zaio: Debagoiena, Aramaio eta Azpeitian independentziari bai edo ez erantzun beharko diote; Goierri eta Ispasterren burujabetzari bai ala ez. Ondoren etorriko dira 2017ko eta 2018ko galdeketa. Eta gero? Emaitzek asko esango dute, baina pentsatzekoa da Gure Esku Dagok aurreikusia izan beharko duela zerbait ondorengoaz. Katalunian etengabe arduratu dira bide orriaz, baina hemen ezer gutxi hitz

KATALUNIA: AUTONOMIA BERRITZETIK INDEPENDENTZIARA

Erabaki Eskubidearen aldeko Plataforma

2005ean sortu zen, urte berean Kataluniako Legebiltzarrak onartutako Autonomia Estatutu berriaren testuinguruan. Espainiak ez zuela onartuko eta horri erantzun asmoz sortu zen plataforma hau, ondoren independentziari buruz egindako galdeketera aitindaria. Erabaki eskubidea gizaratean eragitea, herritarrek kontzientziaztea eta, instituzio eta gizarte mugimenduen arteko zubigintza jarri zizkion helburu bere buruari. 2006ko Autonomia Estatutu berriari buruzko erreferendumean ezezkoaren alde egin zuen eta aurrera begira bere zeregin giltzarrietakoa zen "ez uztea autonomismoa betiketzen".

Herrietako Kontsultak: Arenys de Munt eta beste 300ak

Arenys de Muntek (8.000 biztanle) egin zuen Kataluniako lehen kontsulta 2009ko irailaren 13an, Udalak CUPen eskaria onetsiz eta honako galderarekin: "Ados al zaude Katalunia zuzenbide Estatu independente, demokratiko eta sozial bat bilakatzearekin, Europako Batasunaren barruan?". Bartzelonako auzitegi batek Udaltzak hartutako erabakia bertan behera utzi zuen, halako kontsultarik egiteko eskumenik ez zuela argudiatuta. Arenyseko Autodeterminazioaren aldeko Plataformak hartu zuen lekukoa. Partehartzea %41ekoa izan zen eta %96,2 independentziaren aldekoa.

Handik aurrera udalek galdeketa prozesuak sostengatu zituzten eta baliabideak eskaini, baina Independentziari buruzko Kontsultaren aldeko Koordinadorak antolatuta egin ziren galdeketak Kataluniako

beste 300 herritan, lau txandatan banatuta. Bartzelona izan zen azkena, 2011ko apirilaren 10ean. Guztira 600.000 bat pertsonak parte hartu zuen galdeketeran eta %93tik gora independentziaren alde agertu zen. Pentsa liteke jende gutxi zela ondorengo urteetan etorriko ziren manifestazio erraldoiak ikusita, baina argi dago motorrak ondo berotu zituztela.

ANC: independentziaren motorra

2011ko maiatzean sortu zen Kataluniako Asanblea Nazionala eta bere zeregin nagusia independentziarako bide orria finkatzea izan zen. Une horretatik aurrera bera izan da independentzia prozesuaren akuilu nagusia, alderdiak eta instituzioak helburu horretara bultzatuz. ANC izan da 2012tik aurrera urtero egin diren ekitaldi erraldioen antolatzailea, hala nola 2012ko 400 kilometroko pertsona katea -Kataluniako Bide-edo bestelako mobilizazio erraldoiak.

2014ko erreferenduma

Lehen urratsetan Generalitateak deitu zuen erreferenduma, herritarren prozesu parte hartzaile gisa antolatuta, baina Espainiako Konstituzio Auzitegiak bertan behera utzi zuen prozesua. ANCK, Omnium Culturek eta Kataluniako Udalen Batzarrak hartu zuten lekukoa eta *Ara es l' hora* kanpaina antolatu zuten erreferenduma aurrera atzeratzeko. Konstituzio Auzitegiak leku publikoen erabilera debekatu zuen, baina kontsultak egin egin ziren eta horrek Generalitateko hainbat pertsonaren auziperatzea ekarri zuen, besteak beste Artur Mas presidentea.

Erreferenduma balio sinbolikoa zuen legegaren ikuspegitik, baina balio politiko handia ere bai, emaitzak Kataluniako herritarrek independentziari buruzko iritzia erakutsi baitzuten lehenbiziz. Debeku eta guzti, boto eskubidea zutenen %41ek parte hartu zuen kontsultan, "Nahi al duzu Katalunia Estatu bat izatea?" galderari erantzunez. Baiezia izatekotan, bigarren galderari erantzun behar zitzaion: Estatu independentea izatea nahi al duzu? 2.236.806 herritar joan zen bozkatzera: 1.861.753ek baietz bozkatu zuen; 232.182k estatua bai baina independentzia ez; eta 104.772k independentziaren aurka egin zuen.

Gobernu Konstituziogilea

Emaitza horiek Generalitateak Kataluniako Legebiltzarrerako hauteskundeak 2015era aurreratu zituen, izaera plebisitariarioa emanez. Independentismoa -Junts Pel Sí koalizioa eta CUP- botoen %47ra iritsi zen, Katalunian inoiz lortutako emaitza onena. Kataluniako Legebiltzarreko 135 diputatuetatik 72 independentistak dira orain, 11 soberanistak eta 52 unionistak. Kataluniako lehen gobernu independentista eratu zen 2016ko hasieran, honako enkarigu nagusiarekin: 18 hilabetetan Kataluniako Errepublikako Konstituzioa eratzea, ondoren gobernu desegin eta hauteskundeak deitzeko, oraingoa izaera konstituziogilearekin. Hau da, formalki autonomikoak lirateke berriz, baina Gobernu independentistak konstituzioari buruzko plebisitu gisa planteatuko luke. Bide orriaren arabera, herritarrek konstituzio berria onartuko balute, Parlamentu berriak independentzia aldarrikatuko luke.

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD


Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



© 943 453 588 · www.sigacus.com



MAITE PAPER-DENDA
Geltoki kalea, 6 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943372791



Uzturre enparantza, 1
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 316 / 629 46 18 97
luiscarbus62@hotmail.com



GURE ESKU DAGO

egiten da horri buruz, besteak beste prozesua bera desberdina delako eta baita hemen fruitua heldu gabe dagoe-lako ere.

Egingo dira aurtengo kontsultak eta etorriko dira hurrengoak ere, baina bitartean ez litzateke txarra Gure Esku Dagok gerorako zer aurreikusten duen zirriborratzea eta gizarteratzea: nork bultzatu behar du proiektu independentista gizartean eta instituzioetan? Nola? Zertan geratuko da EAJren foru proiektu berria? Konfrontazio demokratikoak zein leku du bide honetan, batez ere Espainiako Estatuak orain arteko jarrera itxiarekin jarraitzen badu?

Gure Esku Dagok pentsa dezake datozen hiru urteetan joango direla askatzen galdera horiek, batez ere prozesu honek euskal gizartearen gehiengoak erabaki eskubidearen inguruan akibatzea lortzen badu. Baina gizarteari begira, eta funtsean sektore independentistei begira, komeni da kontu horiei buruz ere jardutea eta ahal den neurrian argitzen joatea. 2019rako bide orria izatea klabea da, bestela ilusioa etsipen bihurtuko da. Edozein modutan, unean unekoa: milaka euskal herritar erabakitzen doaz eta hori, printzipioz, urrats berritzaile eta erraldoia da. ■

2014ko ekainean herri baten borondatea erakutsi nahi izan zuen Gure Esku Dagok giza kate erraldoia medio, orain hautestontzietan.

» Hotz sumatzen da giroa, badirudi euskal erabaki zalea gehiago hunkitzen dela Kataluniako galdeketekin bertakoekin baino

» Erabaki eskubidearen bultzadak ezinbestean behar du gizarte eta instituzioen arteko lotura estua, zeresanik ez independentziarenak

Unibertsitate Master Ofiziala

GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA

Izena ON LINE bidez emango da UPV/EHU web orrialdean

www.ehu.es/eu/web/economiasocialsolidaria

Informazio gehiago
gezki@ehu.es
Tel. +34 943 01 74 98
Antolatzailea:



GEZKI



HARATEGIA

www.patxilarranaga.com
Tel.: 943372668
Kale Nagusia, 39 • LASARTE-ORIA

Ogiaren egia



Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biológikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

PAGO

KAFE ANTZOKIA

OIARTZUN

EKAINAK 4
Larunbata

LAUROBA

IV DISKOAREN
AURKEZPENA

22:00etan

CHARLIE & THE COLOURS



Oiartzun: Amazkar, Elorsoro, Kapeo,
Pagoa Kafe Antzokia
Donostia: Donosti Rock
Errenteria: Kellys Pub
Colectivia, Mauka
www.ticket.kutxabank.es

Laguntzaileak:

PAGO
Euskal Herri berriko
artisauek garagardioa

Argia

antz
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Sarrerak

Aurrez 5 € | Egunen 7 €

Aretoa: Taberna irekia ostirala, larunbata eta
igandea 17.00tik aurrera.

Erreserbak: 619421153
@PagoaAretoa
pagoaaretoa@gmail.com



Isilean erakusketa

ETXEKOGIZON LANETAN, ZARATARIK ATERA GABE

Pello Ulazia Ibarzabal (1966, Mutriku) hamar urtez arduratu da etxeaz eta hiru seme-alabez, etxetik kanpoko enplegurik izan gabe. Urtetako bizipenetan oinarrituta *Isilean* erakusketa antolatu du. Mendeetan emakumeek isilean egindako lan duinari omenaldia egin nahi izan dio, eta era berean, gizonak ere zaintzaren ardura hartu behar dutela aldarrikatu. Gizonak "iraultza" isilik egin behar duela uste du Ulaziak, zalapartarik gabe.

Andoingo Bastero Kulturgunean egon zen erakusketa udaberri hasieran. Hurrengo erakusketak Mutrikun eta Hernanin izango dira.



ARGAZKIAK:

Dani Blanco

TESTUA: ONINTZA IRURETA AZKUNE

Ezkerreko argazkian arropa mordo. Garbitu, lisatu, tolestu... inoiz ez da bukatzen. Beheko argazkian etxeko tresnak: xaboiak, zapiak, edalontziak. Badu edertasunik egunerokoak, eta badu haustetik, zimurtzetik, higatzetik...





Maitasun-gorrotu harremana izan du Ulaziak baloiekin. Txukun jasota egon behar eta txoko guztietan agertzen ziren, seme-alabek bildu ez zituztelako. Baina inon ikusten ez zituenean... haiek falta. Beheko argazkian, etxeko ontzi andanaren hutsak hormigoiz emanak. Eskuinean, oinetako zaharrak. Zakarrontzira bota nahi ez eta bigarren bizitza eskaini die artistak zuritua emanda.





Danny Morrison

“Irlandako batasunak ekonomikoki, sozialki eta politikoki zentzua duela sinetsarazi behar diegu unionistei”

Danny Morrison (1953, Belfast) Irlandako mugimendu errepublikarrean pertsonaia garrantzitsua da. Egun, Sinn Féineko komunikazio arduraduna, kazetaria eta bereziki idazlea da. Aurten Irlandako independentziari bide eman zion Pazko Matxinadatik 100 urte betetzen direnean, 1916ko altxamenduaz, H Blokeetako gose grebaren inguruan eta Irlandako aktualitateaz mintzatzeko aukera izan dugu berarekin, Dublinen ospatu den Ard Fheis, Sinn Fein alderdiaren kongresuan.



Martin Mendizabal

@mendigarai

ARGAZKIAK: SINN FÉINEK UTZIA

Zer da egungo Irlandako gizartearentzat 1916ko altxamendua?

Estatubatuarrentzat independentzia adierazpena edota frantsesentzat Frantziako Iraultzaren antzekoa da. Historikoa eta gaur egun ere oso garrantzitsua da. Hala ere, egun boterean daudenentzat lotsagarria da 1916ko altxamenduan eta 1919tik 1921era bitarteko independentzia gudan bizitza eman zuten gizon eta emakumeen adoreaengatik esker gobernatzeko egotea.

Gaur egun, 1916 oso garrantzitsua da Britainia Handiaren menpe gaudelako oraindik eta iparraldeko interferentziak hegoaldean oso modu negatiboan eragiten duelako. Fianna Fail eta Fine Gael hegoaldeko bi alderdi nagusiak 1916ko altxamenduak daukan balorea kentzen saiatzen dira. Egun irlandar errepublikarrak garenok, hegoaldeko 26 probintzietan “Estatu libreak” deitzen jarraitzen diegu, 1921ean ingelesek eman zioten izena. Duela gutxi telebistan Irlandako 26 probintzietan mintzo ziren, nazio bezala aurkeztuz, Irlandaren osotasuna alde batera utziz. Frank Gallagher idazleak 1940an idatzi zuen liburu ospetsu batean zioen iparraldeko sei probintzietan amore eman behar izan zutela beste 26ek askatasuna lor zezaten.

Irlandako Gobernuak hautsak harrotu zituen bideoa egin zuen.

Altxamendua baino hilabete batzuk lehenago Irlandako gobernuak 1916ko altxamendua oroitzeko bideo bat argitaratu zuen. Bertan iraultza egin zuten pertsonen izenak alde batera utzi eta U2ko abeslari Bono, Bob Geldof, Ian Paisley, David Cameron eta Erresuma Batuko erregina azaltzen dira. Ikus-entzunezko hauek amorru handia sorraziz zuten.

Zerk bultzatu zuen 60ko hamarkada bukean IRA armak hartzea?

1912-1922 tartean Ipar Irlandako gutxiengo bat Alemaniako armez altxatu zen. XX. mendeko lehen indar paramilitar faxista bihurtu zen UVF European. Guda zibilarekin mehatxu egin ziguten gure burujabetza aldarrikatzen bagenuen. Burujabetza ez zen errepublika berri bat, baizik eta egun Eskozia edota Galesen duten britainiar agindupekoaren antzekoa. Lehen Mundu Gudaren ondoren ipar-hego zatiketa inposatu ziguten.

Subkontzienteki Ipar Irlanda galduta izanaren erru sentimendua daukagu. Inor ez zen gu laguntzera etorri eraso egin zigutenean, gure etxeak erre zi-

tuztenean. Horregatik sartu zen gure jendea IRAn. IRAn borroka luzearen ostean Erresuma Batuko Gobernuak negoziatzera behartu zuten: unionistek inoiz onartuko ez zituzten gauzak egin behar izan zituzten: boterea partekatu, preso politikoak askatu, RUC polizia indarren desegin edota botere judizialaren erreforma. Unionistak neurri hauek murrizten saiatu ziren, oso fanatiko eta sektarioak direlako. Horregatik guztiz legitimatua ikusten dugu gure burua IRAn borroka armatua babesteko baita 1916ko erresistentzia harrotasunez aldarrikatzeko ere.

1916ko gertakariez kontziente al da Irlandako gizartea edo folklore hutsa da?

Irlandako Gobernuak dituen zailtasunak ez dira datorren astean amaituko. Independentziaren mendeurren hau IRAko gose greban hil zirenen urteurrena ere bada. Datorren urtean mendeurrena beteko da 1917an gose greban hil zen batena. 1918an irlandarrek hauteskunde nagusietan independentziaren alde bozkatu zuten. Urte horretan britainiarrek Irlandako parlamentua legez kanpo utzi zuten. 1919an Irlandako independentzia gudaren hasieraren 100 urte beteko dira. Gobernuak ez daki

“Egun irlandar errepublikarrak garenok, hegoaldeko 26 probintziei ‘Estatu libreak’ deitzen jarraitzen diegu, 1921ean ingelesek eman zioten izena”

“Britainiarrez oso mesfidatia naiz. Beti erne egon behar zara beraiekin”



ekimen hauek guztiak kudeatzen, baina hala ere, ekintza hauek guztiei esker boterean daude. Gizon eta emakume askok beren bizitza eman zuten independen-tziaren alde eta Gobernu honek ez du ezer egiten Irlandaren askatasunaren alde. Irlanda oraindik lege britainiarren menpean dago.

Aurten H blokeetako gose grebatik 35 bete dira. Zer eragin zuen gertaera honek Irlandako gizarte?

1981ko gose greba gure 1916a bezala deskribatzen dut. Ipar Irlandako eremu oso txiki bateko hamar gizon gaztek zazpi hilabeteetan zehar bizitza eman zuten Margaret Thatcher Britainia Handiko historiako sasikume handienaren aurka. Thatcherrek esan zien: “Nola onartuko zaituztet lurralderik ez baduzue?”. Orduan Bobby Sands eta beste hainbat preso politiko ordezkarik politikoki gisa aukeratu zituztenean Thatcherrek hauteskunde legeak aldatu eta hauek politikari bezala onartzeari uko egin zion. Gizon hauek espetxean hil ziren.

Ondoren, Britainiako Handiko Gobernu bere lege bidegabenez lotsarazteko estrategia hasi genuen eta kaleko jendea zerbitzuak eskaintzen hasi ginen: beraiekin batera borrokatu ge-

nuen etxebizitza eta gizarte segurtasun duinen alde eta langabeziaren aurka eginez. Errepideak egin genituen eta nekazaritzan, arrantzan eta kulturari jarri genituen gure indarrak. Mugimendu errepublikarrak hori egin zuen, oso iraultzailea zen. Gobernu britainiarri ez zitzaion batere gustatu eta loialistak antolatatu zituen gure buruzagiak hiltzeko. Gure etxeei eraso egin zieten, telebista eta irratiak debekatu zizkiguten. Ni 1982an Ipar Irlandako Asanbladara hautatua izan nintzen, eta handik bi aste, 1997 arte Britainian sartzeko debekua jaso nuen. Hala eginez gero bost urteko kartzela zigorra jasoko nuen. Britainiako Gobernuak ez zuen legea errespetatzen. Gerra zikinean nahastuta zeuden eta hau estaltzen zuten. Gerra zikinaren kontuak aditzera emango zituen Lord Stevens poliziaren 3.000 orrialdeko txostena argitaratuko zutela esan ziguten baina soilik 17 orrialde erakutsi zizkiguten. Gauza asko ezkutatzuten dituzte. Guk ordea ez daukagu ezer ezkutatzeko. Zerbaitetan harrapatzen bagintuzten kartzelara joaten ginen. Gure komunitateko jendeak ehunka urte igaro ditu giltzapetuta. Oso polizia eta soldadu gutxi joan ziren espetxera ordea. Guztia estalia zegoen. Orain ba-

dakigu Britainia Handiko Gobernuko inteligentzia zerbitzuak loialistak armatzen eta entrenatzen aritu zirela. Beren krimenak estaltzen ere bai.

Irlanda batuaren aukera ikusten al duzu?

Lehenik eta behin Ipar nahiz Hego Irlandako nazionalistez gain, iparraldeko unionistek ere erakutsi behar diegu Irlanda batu batek ekonomikoki, sozialki nahiz politikoki zentzua daukala. Edonola ere, disidente errepublikarren mehatxu edota loialisten mendekuez gain, hainbat arazori aurre egin behar diegu. Ingalaterrak *Brexit*-aren inguruan daukan arazoa ere hor dago, Eskozia, Gales eta Ipar Irlandaren gehiengoak agian Europar Batasunean gelditu nahi baitu. Ingalaterrako gehiengo irteeraren alde dago. Guk ez daukagu askatasunik eta badakigu Gobernu britainiarrak Europako legea eta giza eskubideak bertan behera utzi nahi dituela, Ipar Irlandan daukan arazoagatik. Badakite aurki iparraldean gertatutako hainbat gairen inguruko epaiketei aurre egin beharoko dietela. Adibidez, 1971tik 1975era bitartean *habeas corpus*-aren legea bertan behera utzi zuten. Beraz, britainiarrez oso mesfidatia naiz. Beti erne egon behar zara beraiekin. ■

NORMAL ANTZEAN BIZI DAITEKE PLASTIKORIK GABE

“Plastikoa zoragarria da! Hori ukatzerik ez dago. Arazoa beste bat da: ez daukagu gaitasunik sortzen dugun plastiko-hondakin guztia kudeatzeko, eta osasunerako kaltegarria da”. Horregatik plastikorik gabe bizitzea erabaki dute Javier Barrios eta Marion de La Porte Sinplástico kooperatibako kideek. Nola? Alternatibak bilatuz, eta bezeroei eskura jarritz: sukaldeko tresnak, norberaren eta etxeko garbitasunerakoak, jakiak eramateko ontziak... Gutxika egiten ari diren lana da, “zaila baita gaur egun plastikorik gabeko gauzak aurkitzea”, baina dagoeneko 500 produktutik gora daukate salgai euren webgunean: www.sinplastico.com. Denda Bilbon daukate.



Marijo Deogracias Horrillo

@desplazatua

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Zenbatu dituzue inoiz etxean dituzuen plastikozko gailuak? Eta sukaldean egunero erabiltzen dituzuenak? Horieta-ko zenbat dira biziraupen luzekoak eta zenbat erabilera bakarrekoak? Badago plastikorik gabe normal antzean bizitzetik? Jakin-minak eraman zuen Javier Barrios plastikorik gabeko alternatibak bilatzera. Artean Equo alderdian ari zela “makillajea, janaria, jantziak eta beste hainbat produktu ekologiko saltzen zizutzen dendak bazirela ikusi nuen, baina ez, ordea, etxerako tresnen saltokirik”.

Bila eta bila Kanadan aurkitu zuen eredu eta horrek bultzatuta ekin zion, De La Porterekin batera, Sinplástico ekimena gauzatzeari. Oraindik gogoan dauka behinola semearentzat kristalezko biberoi baten bila aritu zenekoa: “Hemengo farmazietan ez nuen aurkitzen, baina hemen salgai zeuden biberoi-markek Frantzia eta Britainia Handian saltzen zituztela ikusi nuen!”; araudi aniztasunaren ondorio. Plastikoa egiteko erabiltzen den A bisfenola (BPA) delako kutsatzaile hormonal (ikus ARGIAren 2504. zenbakia) 2011n debekatu zuten Europar umeen biberoieta; Danimarkan, Austrian eta Belgikan umeentzako gainerako produktuetan ere debekatu-

ta dago; Frantziako Estatuan 2015ean jakietarako ontzi guztietan debekatu zuten. Espainiakoan debekua, oraingoan, plastikozko biberoieta mugatzen da.

Arreta printzipioa

Osasunean kalterik ez eragiteko gehieneko BPA proportzioa zenbat mugatu beharko litzatekeen ez dago argi, eta Europak arreta printzipioa aplikatu zuen umeen biberoi kasuan; eragin zezakeen kaltearen aurrean, badaezpada, debekatu. Elikagaien Seguritasunerako Europako Agintaritzak, *a priori*, muga ezarrita dauka: 0,005 mg/eguneko/gorputz kiloko.

“Kontsumo-muga produktu bakarrari ezartzen diote, eta hortxe dago tranpa”, dio Marion de La Portek: “Hainbat eta hainbat plastikozko produktu ditugu egunero inguruan eta arauak ezartzen duen muga gainditzen dugu, luze gainditu ere! Horregatik da garrantzitsua arreta printzipioa, indarrean dagoen arauak ez baitu kontuan hartzen substantzien metatzea, ezta haien arteko erreakzioa ere”. AEBetan sei gobernu kanpoko erakundek egin berri duten ikerketa baten arabera, esaterako, BPA daukate jaki-laten %67k.

Ekoizleak hezten

2014ko irailean ekin zioten informazioa hedatzeko webguneari eta azaroan, berriz, saltokia jarri zuten abian. Azaldu digutenez, herritarrek kontzientzia hartzea dute helburu eta jendeak bere burua babesteko neurriak har ditzala. “Kalitatezko produktu osasungarriak lortzeko egiten dugun esfortzua –ez bakarrik dirutan– alferrikakoa da, jaki horiek hutsean ontziratzuz, plastikozko ontzietan prestatuz edo *tupper* eta antzekoetan gordez kutsatu egiten baititugu”.

Tentuz dioskute hori guztia; asmoa ez baita alarma sortzea. “Kontua ez da jendea beldurtzea, baizik eta informazioa ematea jakinaren gainean egonda har ditzaten erabakiak”, zehaztu du De La Portek. Azaldu digutenez, plastiko ororen arazorik larriena informazio gabezia da.

“Hamaika plastiko mota dago eta baikoitzak osaera bat dauka, ezkututzen den osaera. Horregatik, gure bezeroekiko daukagun konpromisoa da dendan biltzen ditugun tresna guztien inguruko gardentasuna”, dio Barriosek. “Salmenta arduratsua egin nahi dugu, eta filtro lana egiten dugu ekoizleen eta erosleen

» **MARION DE LA PORTE
ETA JAVIER BARRIOS:**

“Kalitatezko produktu osasungarriak lortzeko egiten dugun esfortzua alferrikakoa da, jaki horiek hutsean ontziratuz, plastikozko ontzietan prestatuz eta antzekoetan gordez kutsatu egiten baititugu”



artean”. Horretarako, banatzaileek bidaltzen dizkieten produktuak probatzen dituzte aldez aurretik. Hilabeteak igaro ditzakete bezeroei produktua eskaini baino lehen. Ekoizleekin zuzen-zuzeneko harremana lantzen dute, produktuaren osagaiak ondo identifikatzeko, inolako plastiko arrastorik izan ez dezaten.

Lan horretan aurkitu dituzte Berrizen zartaginak, sakotontzi herdoilgaitzak Jundizen, esponjak Galizian, kosmetika Bilbon, AEBetan ur-botila herdoilezina, Palentzian brotxak, hilekorako kopak Almerian, Britainia Handian erosketetarako poltsa-kitak –hari eta tinta naturalez beren-beregi egindakoak–, haginatarako haria Alemanian...

“Produktu naturalen alde egiteaz gainera, ontziak eurak ere garbiak izatea proposatzen dugu”, diosku Barriosek. “Behin baino gehiagotan guk geuk ohar-tarazi behar izan diegu ekoizleei, bidali diguten zer horrek plastikozko heldulekua zuelako edo ile naturalez egindako egurrezko orrazia plastikozko banakako poltsetan bilduta bidali digutelako!”. Kontzientziazioa, beraz, bezeroekiko eta ekoizleekiko lantzen dute Sinplástico. “Alternatibak egon badaude eta guk

haiek bilatu eta batzen ditugu bezeroari eskura jartzeko. Beraz, ez izan pesimistak, alternatibak egon badaude!”.

#plastikobarikbizinaiz

Uste baino errazagoa dela diote plastikozko kontsumoa gutxitzea. Izan ere, iraupen luzeko plastikozko gailuak ordezkatzea zailagoa den arren, erabilera bakarrek gauza asko erabiltzen ditugu egunero. Dioskutenez, “kontsumitzea botoa ematea da; eta guk kontsumitzeko beste

modu bat aukeratu dugu”. Horretarako #yovivosinplastico konpromisoa gure egitea proposatzen digute: 1) ingurumenarekiko konpromisoa, plastikozko poltsa gutxiago kontsumituz; 2) osasunarekiko konpromisoa, beirazko edo al-tzairuzko ontziak erabiliz; 3) hurrengo belaunaldiekiko konpromisoa, material ekologikoak aukeratuz; 4) neure buruarekiko konpromisoa, hilero ekintza bat garatuta plastiko barik bizitzeko. Horra, bada, Sinplástico egitasmoa. ■

Bilbon dute denda Barrios eta De La Portek, Sinplástico kooperatibako kideek. Banatzaileek bidaltzen dizkieten produktuak aldez aurretik probatzen dituzte; hilabeteak igaro daitezke bezeroei produktua eskaini baino lehen.

Gurasoen erronka

EUSKARAZ ARITZEKO AGINTZETIK NORBERAK EGITERA

Ez du balio. Eskola-umeei “egizu euskaraz!” esaka ibiltze soilak ez ditu fruituak ematen. Motibazioan eragiteko formula bila, beste errezeta batzuk sortu behar direla jakitun, hainbat ikastetxetan esperientzia interesgarriak garatzen dabilta. Eibarko Eta kitto! euskara elkarteak antolatutako *Euskararen transmisioa* mintegian Eibarko eta Elgoibarko hiru ekimenen berri eman zuten. Ekimenok balio izan dute ikasleak, irakasleak eta gurasoak motibatzen.



Amaia Ugalde Begoña
@amai_ugal

Eibarko San Andres ikastetxeko pasilloetan ikasturte hasieran baino euskara gehiago entzuten da orain. Hori dio Juani Iriondo bertako irakasleak. 2015eko azaroan hasi ziren Aldahitz ikerketako eusleen metodologiarekin lanean. Ikerketa hori lan-munduko hizkuntza ohi-turetan eragiteko diseinatu zuten Pello Jauregik eta Pablo Suberbiolak. Iaz, Eta Kitto! euskara elkarteak antolatutako mintegian eman zuten Aldahitzen berri, eta ideia horretatik abiatuta, lantokieta-rako balio zuen esperientzia ikastetxera aplikatu dute.

Eusleek, hitzak dioen bezala, euskarari eusteko ardura izaten dute. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailarako ikasleak dabilta egitasmoan parte hartzen, eta hasieratik oso motibatuta egon direla azaldu du Iriondok: “Ikerketaren oinarrietako bat parte-hartzea borondatezkoa izan behar dela da, eta ikasleei proposatu genienean, denek nahi izan zuten parte hartzea”. Astero, gelako bost pertsonak hartzen dute eusle izateko ardura, eta ikaskideek funtzio hori onartzen diete.

Ikasleei proposamena egitean, ikerketa baten moduan planteatu zuten ekimena: “Esan genien batzuek eskolatik kanpo euskaraz berba egiteko aukerarik ez daukatela, eta eusleek aktiboki lagunduko dietela ikaskide horiei”. Azken batean, helburua euskaraz berba egiteko aukera

gehiago sortzea da. Ikasleek eragile direla sentitzen dute, eta horrek motibazioa izugarri handitzen duela azaldu du San Andres ikastetxeko irakasleak. Eusle izatea ohorea izaten da: “Garrantzi handiko pertsonak dira, prestigioa eman diegu; badakite ez dela lan erraza, edonor ezin dela eusle ona izan”. Irakasleak “eusleen eusleak” dira, ikasleak animatzen ibiltzen dira, bidelagun.

Ikerketa izaera du esperientziak, eta horrek ere eragina du motibazioan. Aste amaieran ikasleek fitxa batzuk betetzen dituzte, galdera sinpleekin. Eusleei ‘Nola hitz egin duzu aste honetan?’ galdetzen diete, eta ikaskideei, ‘Nola hitz egin duzu aste honetan eusleekin?’. Eskala batean erantzun behar dute –dena euskaraz, gehiena euskaraz, bietara berdin, gehiena gaztelaniaz, ia dena gaztelaniaz–. Erantzunekin grafikoak egiten ditu Juani Iriondok: “Ikusi dute hizkuntza ohiturak ikertzeko gai bat ere badirela, eta eusleek hartzen duten erabakiak eragina duela gela osoko euskararen erabileran”.

Eusleek ez dute identifikazio ikurrik izaten: “Bakoitzak erantzukizuna hartzen du, eta ez dugu nahi izan inor kontu eske ibiltzea. Eusle denak badaki zer den, eta horrekin nahikoa da”. Apurka-apurka ikasle guztiak pasatu dira eusle izatetik, eta ohol batean astero eusleen argazkiak gehitzen ibili dira. Gela bat bereziki

ondo ibili da lan horietan, eta gelakideei talde-argazkia atera zien Iriondok. Eusleen oholean argazki hura jartzea aitor-tza izan zen gela harentzat. Elkarri tira egiten ibiltzen dira ikasleak, eta Iriondok nabarmendu duenez, derrigorrez euskaraz aritzearen ideia ezabatu dute: “Esperientzia hau zerbait alaia izan da umeentzat, ez da zama”. Gurasoei ere entzun diete gustura dabiltzala seme-alabak. “Ez dugu ezer asmatu”, dio irakasleak: “Aldahitz gurean aplikatu baino ez dugu egin, eta bai, funtzionatu du”.

Gurasoak ikasle

Eibarren bertan, Arrateko Andra Mari ikastetxean, guraso talde bati euskara eskolak ematen dabil Elizabeth Lema, eta bere esperientziaren berri eman zuten Eta Kitto!-ren mintegian. Abenduan hasi zituzten eskolak, eta guraso batzuek dagoeneko nahiko txukun egiten dute euskaraz. Ama batek ikasturte hasieran eman zien ideia irakasleei. Zail ikusten zuten euskaltegian izena ematea, diru kontuak eta ordutegiak tarteko, eta umeen eskola ordutegian euskara ikasteko prest egongo zela esan zuten. Klausuroan komentatu zuten, eta Elizabeth Lema eskolak emateko prest agertu zen. Lanaldi erdian dago lanean, eta lan ordutetatik kanpo eskolak emateko erronka hartu zuten, baita pozik hartu ere.

Deialdia egin zuten eta hamabost gurasoko talde bat sortu zen. “Helburua gurasoek umeekin euskaraz harreman polita izatea da”, azaldu du Lemak. Gramatika eta aditz tauletatik urruti, egunerokotasunean erabiltzeko euskara ikasten dute. Zerotik hasi dira taldeko asko; “hasi ginenean galdera bat egin nien, ‘Zer esango zenioke zure umeari euskaraz?’, hori izan da abiapuntua”.

Lemaren berbetan, giro polita izaten dute euskara eskoletan. Guraso guztiek maila bera ez dutenez, ikasketa kooperatiboa egiten dute, bata besteari laguntzen eta talde lanean: “Batzuek etxerako lanak eskatzen dituzte eta oso langileak dira; azterketa ere egin dute, gurasoek eurek eskatuta”. Kontatu duenez, guraso batek etxean ikasitakoa gogoratzeko, ohartxoak jartzen ditu han eta hemen, “*Recoge los juguetes* – Jaso jostailuak” moduko esaldiekin.

Umeek eskertu egiten dute gurasoen ahalegina, eta Elizabeth Lemak azaldu duenez, gustatu egiten zaie gurasoek euskara ikastea. “Esaten dute oporrak hartzen dituztenean eurek erakutsiko dietela euskara gurasoei”. Lemak zoriontsu ikusten ditu umeak.

Elgoibar ikastolan, gurasoak ziztatzin

Elgoibar ikastolako kideek ere parte hartu zuten Eibarko mintegian. Deñe Zabalo ikastolako gurasoak *Bizia delako* egitasmoaren berri eman zuten. 2014 amaieran hasitako gurasoen euskara taldeak sortutako leloa da *Bizia delako*, eta ume eta gaztetxoengan eragitea baino gurasoengan eragitea da euren helburu nagusia.

2015eko ekainean, ikastolaren jaiak aurkeztu zuten taldea, kontzientziazio ekimena tarteko. Konpromisoen jokoak egin zuten. Pegatinekin egindako dinamika baten bidez, gurasoak euskararen alde konpromisoak hartzera animatu zituzten. Elgoibar ikastolan 629 familia daude, eta egun hartan 682 konpromiso batzea lortu zuten.



Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxean gurasoak euskara ikasten umeen eskola orduetan. Bigarren argazkian, herri bereko San Andres ikastetxeko gela bat. Denak izan ziren euskararen “eusle”, eta irakaslearen ustez gainera eusle funtzioa bikain bete zuten. Argazkiak ikastetxeek beraiek utziak dira.

Gurasoek esaten dutena baino gurasoen jarduna izaten da umeen hizkuntza ohituretan eragiten duena. Ildo horretatik, ikastolako gurasoak ardura horretaz jabetzea nahi dute euskara taldeko kideek. Kontzientziaziorako esaldiekin kartelak jarri dituzte ikastolako hainbat bazterretan, eta ikasturte ha-

sierako batzarretara ere jo zuten, bertan taldearen helburuen berri emateko. Hemendik aurrerako erronken artean, Deñe Zabalo gurasoentzako motibazio ekintzak egitea eta ikastolan egiten diren ekimen guztietan gurasoek hartutako konpromisoak gogoraraztea aipatu ditu. ■

BABESLEA: HERNANIKO UDALA



Suzko zuhaitza



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Gure landare askoren jatorria izanik, ekialdera joateko edozein proposamen gogo onez hartzen dut, eta itsuskeria egitea kosta egiten zait. Hilabete bat edo bada Grezian izan naizela. Ahoa zabalik ez, lotsagatik, baina halatsu ibili naiz hango paisaietan. Itsaso ikusgarriak, olibondo (*Olea europaea*) eta zitriko (*Citrus sp.*) sailak eta elurmendutako mendiak argazki berean. Lur haietan izaten naizenero Federiko Krutwig handia etortzen zait gogora, areago maiztzeko lorediaren emana eta bere usain zorratzailea direla medio: bugainbilea (*Bougainvillea spectabilis*), mitxoleta (*Papaver rhoeas*), Judasen arbola (*Cercis siliquastrum*), granada (*Punica granatum*), algarroboa (*Ceratonia siliqua*)...

Ezagutzen ez nuen zuhaitz bat ere topatu nuen tartean. Kaleetako espaloietan zuhaitzak jartzeko egiten diren txorkeetan edo alkorreetan ikusi ditut, edo parkeetan; hau da, hiriguneetan. Lanean topatutako lorezainei galdetu eta "akakia" dela ziorten. Nik ez nion akazia tankerarik hartzen, baina guk *Robinia pseudoacacia*-ri sasiakazia deitzen diogun eran, han akazia nori ez ote diote dei-




Grevillea robusta, "suzko zuhaitza".

tuko; batek daki. Hostoaren erakuskari bat eta lorearen argazki kaskar batzuk hartu eta etxera iritsi orduko liburuen itsasoan murgil egin nuen. Baita laster aurkitu ere. *Grevillea robusta* du izena. "Pinua" ("urrezko pinua", loreagatik) eta "haritza" ("zetazko edo zilarrezko haritza", hostailagatik) deitzen diote, baina niri beste izen bat gehiago gustatzen zait: "suzko zuhaitza". Eskua baino handiagoko hostoa du, sakon ebakia, mehe-mehe, ia garo baten itxurakoa, eta azpiko aldea iletsu zilarkara. Neguan ez da soiltzen, eta udaberriko beroetan sugar koloreko lore multzo handiak irekitzen ditu, han-hemen, dagokien tokian ez ba-

leude bezala. Deigarria da oso. Koloreaz gain, loreak multzo handi xamarretan emateak berezi egiten du. Alergia duenak, zer gerta ere, ez ukitzea hobe, dermatitis eragilea da.

Apaingarri erabiltzen da parkeetan. Azkar hazten bada ere, zur iraunkorra sortzen du: hesietarako, leihoetarako eta zurgintza lanetarako erabiltzen da. Gitarren kaxak ere egin izan dira, tonalitate berezia eranstean dio, nonbait. Erleek lorea gustuko dute.

Guri landare asko Grezia aldetik, ekialdetik etorri bazaizkigu ere, suzko zuhaitza Australiatik ekarritakoa dute. Ekialdetik... ■



Atez ate, 6 urte
Birziklatze tasa, %82
Herritarrei esker,
Hernani jasangarriagoa





UZTALDI

UZTALDI NEKAZARIEN KOOPERATIBA

Nekazari gazteak gizarte eragileekin bat eginik



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Egungo gazteek ez dute etorkizunik lehen sektorean”. Makina bat aldiz entzun ditugu antzeko esaldiak (eta, agian sinistu ere bai) azken urteetan. Base-riak, nekazaritza txikia, landa eremua... etengabeko galeran joatea nahi duten horiek, lurretik bizitzea ezinezko dela sartu diete gazteei buruan: “Hobe duzu fabrikari aldi baterako lana bilatu...”.

Badira, ordea, nahitaezko eredu horri aurka egin eta lurretik (eta beste era batean) bizitzea posible dela erakutsi duten hamaika proiektu. Horien artean dago Lizarrako Uztaldi nekazarien mikro-kooperatiba: “Lan munduan dagoen prekarietatea, langabezia eta egoera txarra ikusita, alternatibak sortu eta gazteon ahalduntzea izan da helburua”, azaldu digu Uztaldiko kide Erik Ruizek.

Proiektu zabalago baten parte

“Denendako” kooperatibaren parte da Uztaldi. Bertan, hainbat alorretako gazteen proiektuek egin dute bat: nekazaritza, ostalaritza, abentura... “Sinergiak sortzen ditugu guztien artean: adibidez, ostalaritzakoek gure barazkiak erabiltzen dituzte sukaldean”, dio Ruizek. Lizarraldeko 15-20 bat gaztek osatzen dute kooperatiba zabala, bakoitzak bere proiektua izanik ere ideia bera konpar-

titzen dutenak: dirua beharrean, pertsonak jartzea lehen planoan.

Baratzean eta baratzetik

Lizarrako apaiz kaputxinoak herritik joatekoak zirela jakinda, Uztaldiko lagunek beren proiektua aurkeztu eta akordiora iritsi ziren: lurren zaintza eta mantenuaren truk, horien erabilpena beren esku geldituko zen.

Geroztik, herriko lau gazte dabilta jo eta ke barazki ekologikoak ekoizten eta zuzenean saltzen. “Nekazaritza jasangarria bultzatzea, produktu ekologikoak eskaintzea edota bertako haziak landu eta ezagutzea dira gure helburuetako batzuk”. Herriko hainbat gunetan saskiak banatu eta asteroko azokan parte hartzeaz gain, denda txiki bat ere hartu dute nekazariak beren produktuak zuzenean saltzeko.

Laneko proiektu bat bezain beste, proiektu sozial baten moduan ulertzen dute kideek Uztaldi: “Herriko beste eragileekin, gaztetxearekin, txosnekin, AEKrekin... ekimenak egiten ditugu. Gizartearekin bat eginda aurrera egitea da gure helburua”.

Agian, bada garaia orrialdeko lehen esaldiari buelta emateko: “Bai, gazte, bada etorkizunik lehen sektorean”. Bide berriak aurkitu behar... ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
t @bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Ekainak 1: Otsagabia

Eskolan, ordua zehazteke.

Ekainak 10: Mutriku

Galdona auzoko kanpinean, 20:00etan.
Mutrikuko Baserri Elkarteak antolatuta.

Ekainak 11: Gellao (Eskoriatza)

Auzoko elkarteetan, 11:30ean. Muruondo elkarteak antolatuta.

Ekainak 14: Barañain

Sahats euskaltegian, 19:00etan.
Kultur Astearren barruan.



ALTZA PORRU!

AURKEZPEN-FESTA

Ekainak 16: Hernani

Karabeleko ekonekazaritza etxaldean,
18:00ak aldera.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus
943 371 545

HANS MASSAQUOI, **BELTZA** NAZI ARTEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Hanburgo, 1926ko urtarrilaren 19a. Hans-Jürgen Massaquoi jaio zen. Ama Berta Beatz zuen, alemaniar erizaina; aita, berriz, Liberiako kontsul Momulu Massaquoiren seme Al-Haj. Aitak ez zuen seme jaioberria bere gain hartu, baina aitonak besoak zabalik hartu zituen ama-semeak kontsulatuan.

Lehen urteetan errealitate paralelo batean bizi izan zen Hans. Kanpoan nazionalsozialismoa indarra hartzen ari zen bitartean, kontsulatuan Hansen inguruko gehienak beltzak ziren eta etxeko zuri apurrek nagusi liberiarren zerbitzuan lan egiten zuten. Kanean, mutiko exotikoak arreata eta losintxak jasotzen zituen. Beltzak zuriaren gainetik zeudela, bere arraza abantailatsua zela iruditzen zitzaion Hansi.

1932an kontsulak Liberiara itzuli behar izan zuen eta ama-semeak argindarrik eta urik gabeko atiko batera aldatu ziren. Hantxe bukatu zen ordura arteko bizi-modu erraza. Eta hurrengo urtean Hitler kantziler izendatu zuen Hindenburgek.

Bere adineko beste asko bezala, nazien distirak liluratu zuen. Ama lanean zenean, Hans zaintzen zuen bizilagunari, izeba Möller-i, jertsean svastika josteko eskatu zion. 1936an, hamar urterekin, Deutsches Jungvolk Hitlerren Gazteriaren haurren taldean sartu nahi izan zuen, baina ez zioten utzi. Ikasle



Ezkerrean, Hans-Jürgen Massaquoi (1926-2013), svastika jertsean josita duela. Eskuinean, Hans New Yorken. Alemania nazian hazia, Bigarren Mundu Gerran handik alde egin eta 1950ean lortu zuen AEBetako herritartasuna.

ona zen eta ingeniaria izan nahi zuen. Baina 1938an eskolako zuzendariak bere txostena faltsutu zuen ikasle mulatoa bigarren hezkuntzara iritsiko ez zela eta, beraz, unibertsitatean ikasiko ez zuela ziurtatzeko. Burdindegi batean sartu zen aprendiz eta han jardun zuen hainbat urtez.

Gerra piztu zenean ez zuten errekrutatu, eta bere borondatez frontera joateko izena eman zuenean ere armadak ezezkoa eman zion.

Behin Alderdi Naziko kide batek taberna batean eraso egin zion eta Bertha



KALANGU

amak geldiarazi zuen erasotzailea. Eta gerran pilotu aliatutzat jo zuten beste batean; ozta-ozta atera zen onik. Baina beltzak ez zituzten jazarri sistematiko-ki, juduak edo ijitoak bezala. Behe-mailako gizakitzat zituzten, baina ez zegoen haiek sarraskitzeko premiarik.

Gerra ostean Liberiara joan zen lehenik eta AEBetara gero. Kazetaritza ikasi zuen eta, besteak beste, Martin Luther King buru zuen eskubide zibilen aldeko mugimenduan parte hartu zuen. 2013an hil artean, behin eta berriro adierazi zuen Alemania zela bere aberria. ■



WARNER-PATHE

Historiaurrea bikinian

50 urte bete dira zine aretoetan Historiaurreari buruzko zentzugabekeria handienetakoa estreinatu zela: Don Chaffeyk zuzendutako *One million years B.C.* (K.a. milioi bat urte). Filmean dinosauroak eta gizaki modernoak ageri dira eta, ez batzuk ez besteak, ez zeuden gure planetan duela milioi bat urte. Dinosauroak duela 65 milioi urte inguru

desagertu ziren eta *Homo Erectus*-ak ez zuen Raquel Welchen antz handirik (argazkian). Depilazioa, ileko laka eta bikini ere kronologikoki ez datoz bat.

Eta, hala ere, Stanley Kubrickek probetxua atera zion filmari: azken muntaketan luizi baten grabaketak baztertu zituzten, 1971n Kubrickek *A Clockwork Orange* lanean erabiliko zituenak. ■

ALTZA PORRU! JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Baratzearen sekretuak komikietan argituta



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Baratzezaina ereindako lehen ilar-landarearen zain bezala daude Jakobitak liburu berriaren esperoan. Noiz aterako. *Bizi Baratzea* best seller-a Durangoko Azokan erosi eta hurrengo asteetan osorik irentsi zuten, eskualdean Jakobak berak hitz egin duen aurkezpen guztietara joan dira, eta orain gehiagoren beharrean daude. Bada ekainarekin batera izango da kalean, ARGIA-ren eskutik, beren gosea aseko duen liburua.

Altza porru! baratzeaz eta horrek inguratzen duen jakintza guztiaz zortzi marrazkilarik ilustratutako komiki-liburua da. *Bizi Baratzea*-rekin hasitako bideari jarraipena emango dio hizkuntzarekin jolastuz, ironiatik eta umoretik.

Baratzeak kulturaren atalak biltzen dituela esan ohi da. Batzuek ikusten dute artea, besteek arotz edo mekanikoaren eskua, matematika, sukaldaritza... Ortua omen da eremu askotako ataria. Eta itxura denez komikigintzarena ere bai, edo komikigintzatik landu daiteke behintzat; eskuaren artea.

Asisko Urmeneta, Ainara Azpiazu "Axi", Antton Olariaga, Zaldieroa, "martin" martiarena, Josevisky, Unai Iturriaga eta Unai Gaztelumendi dira komikilariak. Jakoba Errekondo aritu da gaia eta oinarria jartzen. Maialen Lujanbioren idatziak ematen dio sarrera eta Idoia Torregarai eta Markel Lizasoainen ukitua estimatzen da.

Liburua mintzo da (testu eta marrazki bidez) ilargiaren gorabeherez, baratze-ko elikagai-kateaz, ortuaren inguruko



hizkuntzaz eta esaerez... Baina ez diet amaiera zapuztu nahi Jakobitei, eta ez dizkizuet liburuaren sekretu guztiak kontatuko.

Aurkezpen-festarako gonbidapena

Liburuaren aurkezpen-festa ekainaren 16an izango da Karabeleko ekonekazaritza etxalde esperimentalean, Hernanin (Gipuzkoa). Ez da ausaz hautatutako lekua, ARGIAren eta *Bizi Baratzearen* filosofiari jarraituz, lagun-sareari garrantzia, protagonismoa eta presentzia eman nahi zaio. Lekuak ere produktua- ren esentziarekin bat egitea nahi da.


Egile guztiak bertan izango dira, bezaz, saltsa ziurtatuta dago.

Jakobita maiteok, esan beharrik ez dago guztiok gonbidatuta zaudetela aurkezpenera. ■

“Minatokitik (*Tokyotik egia erran*), agur bero bat. Eta segi aitzina astekari bikain honekin!”

Gillen Harlouchet
ARGIAkoa

Sarean arrantzatua



[Bata zigortua... Bestea, ziur, ordaindua. Baina denok ezagutzen dugu aldea @elcorreo_com @argia]

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiraletan, 10:30ean.

Goseak bazkatzeko oturuntzak

Euskal Herrian, dakigunez, mahaiaren inguruan biltzea hobetsi da. Gizonak, bistan dena. Haurrek aurrerago eta emazteek beranduago-edo sukaldean jaten zuten. Aski ikusgarria da bertsolariek nola islatu zituzten, ironiaz, umore garratzez, baserrietan edo ostatuetan antolatzen ziren bazkari eta afari fantasmatuak. Iruritako Martin-Koxeren bidea jarraitzen zuten: ongi jan, ongi edan, aseta gelditu...



Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"



Etxahun eta Otxalde koblakari garaiki-deak, Betiri Santz –gosearen izen goitia...– sabelean karkara zebilkiela atera ziren Euskal Herriko pare bat taberna ospetsuetatik. Eta gainera gaizki tratatuak izan ziren. *Ezpeletako Herrian* (Otxalde) eta *Gaztalondo Handian* (Etxahun) pusketan kontatu zituzten beraien makurrak, jendeak alaitzea helburu. Baina funtsean goseak akuilatu eresiak dira.

Etxahun (1786-1862) eta Otxalde (1814-1897) ikusgarriak ziren. Arrakasta itzela zuten Iparraldean, batak Lapurdin, besteak Zuberoan, bertsoak, paperean etzanak eta bat-batean kantatuak eskaintzen zituztelarik. Urruñako Lore Jokoetan parte hartu zuten. Otxalde antiklerikala zen gainera. Fama gaitzak akuilaturik, jatetxe ilun eta gurintsuetara hurbiltzen zirenean, etxeko andereak zeken zitezkeen, animali gogorak ahalik lasterren despeditzeko. Bi oilarrak bekoz beko aurkitu ziren behin:

Ezagutzen duzia
Barkoxen Etxahun?
Holako koblaririk
ez omen da nihun...
Bisitaz joan nindaike
ez balitz hain urrun.

Jauna, ezagützen dit
Etxahun Barkoxen:
Egün oroz nitzozü
hüllantik ebilten.

Etxahunen malenkoniatarra ezaguna da, bereziki Jean Haritschelhar euskaltzainak 1969an Barkoxeko bardoaren lanak sakonki aztertu eta erdarara itzuli zituenenez geroztik. Ordurako herritarrek pastoralak ontzen zituzten, hainbeste gorrotatu zituen seme kuttuna ardatz, olde andanak erakarriz eskualde guztietatik.

Pierra Topeten bertsoetan bizitzak inarrosi gizona dakusagu baina mihia, bipila eta zorrotza zuen. Baztertu baldin

bazuten, mina egin zion bakoitza, gizon, apez, emazte, neskatila, koplak zoharren bidez betirako madarikatuak bezala gelditu ziren. Etxetik kanpo eman zuten eta eguneroko ibiltari bat eraman zuen, Pixtako edo Ünürritzeko Olhako artzainekin egiatzki loriatzen zela. Salbai hutsa zen herrira jaistean...

Gaztalondo Handian olerki heroikoan ernatzen da bertsolariaren ironia eta herra, ezpata distiratsua bailitzan:

Gaztalondo handian
agitu niz arrotz,
apaidü bat egin düt
ezpeitzen gorgotz.
Untsa bazkaltüren
nintzala nintzan botz,
khümitatzailia
aberats nilakotz.

Barkoxe herri zabala da, auzo famatu anitz baditu, zenbaitek oraindik ere buruz hizkatzen dituztenak: Txapela,



Larreja, Gaztalondo, Oilauki, Haranbeltz eta Karrika. Etxahunen etxea Madalena Mendiaren mazeletan kokatua zen. Laborariak dira bertan gaur, lehen bezala. Ostatuko etxeko anderea jenerusa, eskuzabala zela onartzen zuen hargatik poetak, jateko zetorkion arrotza gus-tukoa baldin bazuen bederen. Etxahun aldiz gorgotz, zakar hartu zuen.

Lau bertset izkiriatu zituen berehala. Sei aldaera kausitu zaizkio denboran zehar. Arrebari abestu zizkionetan salatz du Arangaraiko zakurrak zango-sa-garra ausiki ziola. Egoera *llabür* eta *hun* korapilatzen du, entzulearen izpirituan algara haziz, pobreaki errezibitua izan baitzen: artozko ogia, mestura, gatzik gabeko salda, lursagar erdi hotzak, baxera zikinak, eta bukaeran, bekatuetan bekatuena, ardoa zein bekaitz isuri zion:

...
zopak nütin artoz
salda ahül gatzotx
godalia hur hotz
eta hetarik landa
bi pattako erhotz.

...

zieta nin sakho,
gathülia manddo,
kullera zurezko,
tahalla beltz ta xatar
bat lunjeratako.

Etxahun, gosetu etengabearen pare irudikatzen dugu. Jatetxeetan sartzean, bereziki bere auzokoa zen Gaztalondon, apairu izugarriak lehiatzen zituen alabaina. Errealitatea arras ezberdina zen, tabernetako gela tepuetan, mahaiaren zabalean, klase-borroka mota bat jolasten zela, nehork txintik salatu gabe. Erran eta gorde arren, azaltzen denaren arteko harremanak *Gaztalondo Handian* bertso-saileko perla bederak ezinbesteko egiten dizkigu.

Otxalde bidarraitarra, Etxahunen moduan, mugazaina izanagatik ofizioz ez zen aberatsetatik. Herririk herri ibili arazten zuten eta hamaika haurreko familia zuen hazteko funtzionario soldata urriarekin. Argentinara joan zen emazte eta umeekin, baina handik laster itzuli, andrea eta ume zenbait bertan abandonaturik. Mezarik gabe ehortzi zuten Bidarrain, ideologiaz gorrietatik zelako.

Iruñeko Ferietan, Makila edo *Kilo egilearen kantuaren ontzailea* da.

J.D.J. Sallaberry apezak 1870ean bildu *Ezpeletako Herrian* zatiko zazpi kompletan Otxaldek, Etxahuni Zuberoan gertatua errepikatzen du, miraila jokoa bailitzan: hitz emanak ez zuen alabaina egiazki emanaren itxurarik Lapurdi zolan ere. Peio Ospital kantariak abesten ditu, noizean behin publikoan aritzea galdatzen diotelarik.

Bertso bietan nabaritzen dugu gizonen artean eta bidez bide zein mendiz mendi zohitu poeta hauen joera misoginoa: emazteak ez zituzten begi onez ikusten, Gaztalondon ala Ezpeletan, faltsukeria, urguilua, alferkeria, bazterkeria sozialerako jaidura egozten zietela. Etxahun mundu guztiaren kontra kexu zela ez dezagula ahantzi. Otxalde leunagoa zen:

Ezpeleta herrian, ostatu batian
Gertatu izan naiz bazkari batian,
uste gabian, laur lagunetan;
etxek'andera bere lanetan,
espantua franko bere saltsetan,
ageriko da gero obretan...

EMANALDIAK



 EKAINAK 2 GASTEIZ Oihaneder Aretoa 19:00etan	 EKAINAK 3 GERNIKA Astra 18:30etan
 EKAINAK 6 BILBO Kafe Antzokia 19:00etan	 EKAINAK 6 DONOSTIA Kutxa Andia 19:00etan
 EKAINAK 9 IRUÑEA Katakarak 19:00etan	 EKAINAK 17 URRUÑA Itsasmendi 20:30etan





EUSKALDUNON EGUNKARIA
hizpide duen dokumentala



Noski, bazkaria aitzina joan arau, deus ez da iragarriaren neurrikoa. Ezpeletako jatetxearen jabea goizik jaiki zen, sua piztu zuen eta haragia erosi. Dena ongi zebilen horraino. Jatera plantatu zirenean egia zartatu zitzaien:

Poxi poxi bat eman zautan niri,
zer jenero zen ez zen ageri,
mamia guti, hezurra handi.

Ardoa ez zen zinezko ardoa:

Edan dezagun beraz gogotik,
horditziaren beldurra gatik,
honek ez gaitik joko burutik.

Eta saltsa?

Saltsa ez tuela egin berria,
bezperakua, mintzen hasia.

Haragiak ez zituen aseko:

Be'iratu eta egin neron irri,
zikiruaren fama tzarrari;
mehe zen baina ez zen ernari.

Kafea azkenik ura zen, kikara erdi bat purruxekin egina, agian ikatzarekin. Bertsoak behatzaileak barrez lehertzeko helburuarekin josiak dira eta lortzen zuten Otxalde, Etxahunek *Gaztalondo Handian* takatzen duen gorroto minberraren aztarnarik gabe, burla eta trufaren ildoan geratzea.

Etxahunen eta Otxalderen bertsoek bazkari-afari ederrak, askotan, amets hutsak baino ez zirela argi uzten digute. Historian zehar, goseteak urte luze eta morbidoak ziren, jendeak milioika hiltzen zirela eta lekukotasunen arabera, abereen maneran, belarra jatera kondentatuak ziren. Badirudi Euskal Herrian goseteen garaia Amerikaren ustiatze aroarekin bukatu zela. Handik ekarri ziren artoa, bistan dena, bai ere lursagara, tomate, piperra eta txokolatea.

Berehala landatu, hazi eta sukaldean erabili ziren: artoarekin demagun haurtzaroan guk ere irentsi genituen taloak, mesturak, saldak, saltsak edo pastetxak adelatzen ziren. Jatekoa zuhur zen, baina asegarria. Goseteen eraginen mendratzeko bezala, janaldi erraldoien kontakizunak hedatu ziren jendarteetan,

batzuetan Inauteriz harilkatzen zirenak. Gosea ahanzteko dastatzen ahal zen François Rabelaisek 1534an plazaratu *Gargantua* nobelaren utopia pikareskoa.

Etxahun eta Otxalde badabiltza engoitik tripa zorriak elkor, korrok eta hutsik. Baina bertsolari ezezagun baten lekukotasunak tabernetan gaizki hartua izatea ez zela egundainokoan legea gogora ekarri diezaguke. *Bizi naiz munduan* kopletan ez da janaria falta, baina abeslariaren maite kuttuna: *han ez zen eskasik maitea zu baizik...* aitortzen digu auhen batean.

Barkoxe eskualdeko koplari bat mintzo zaigu eta aipatzen digun menuak ahotik ezin utzia dirudi aldion:

Izan niz Barkoxen
kusiaren etxen,
ahuñaki jaten
segur ona baitzen
kostaletak errerik,
biriak egosirik,
ogia muflerik,
arinoa gozorik...

On egin. ■



Kalean da ekaineko

aizu!

- 'Katalina de Erauso' pastoralara
- 'Euskal baleazaleen triskantza' dokumentalaz
- Santutxun, KRML Bizirik!
- Patri Espinar, arin-arin
- Hiru Txirlo, jolas eta joko

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Hitchcock, McGuffin-a eta ikuslea harrapatzeko amarrua

McGuffin: Ez nahastu, gaur egun, modernoek betiko magdalenei deitzeko erabiltzen duten "Muffin" hitzarekin. McGuffin-a, ikus-entzunezkoetan erabiltzen den baliabidea da, istorioan garrantzi gutxi edo batere ez izan arren, pertsonaiek argumentuan aurrera jarraitzeko balio duena. Batzuek, gidoia lantzerako orduan, ikuslea harrapatzeko amarru oso eraginkorra dela diote. Besteek aldiz, istorio baten barruan argibiderik gabe uzten den elementu iruzurgilea. Eztabaida hau argitzeko, Alfred Hitchcock zuzendaria gonbidatzea izango da onena, berak egin baitzuen teknika ezagun, baita hitza bera ere.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Ezagunak izan ziren suspentsearen maisuak bere ibilbidean erabili zituen elementu, teknika eta baliabide zinematografiko ugariak. *Zinema Hitchcocken ustez* liburuan zinegile ingelesak François Truffaut zuzendariarekin egin-dako elkarrizketa sorta ageri da. McGuffin izena nondik datorren ere azaldu zuen: "Izenak jatorria *music-hallean* du. Bi gizon tren batean zihoazen eta haietako batek besteari honakoa galdetu zion: 'Zer duk hire buru gaineko maletategian doan pakete hori?'. Besteak erantzun zion: 'Ah, hori McGuffin bat duk'. Beste gizonak bigarrenkoz galdegin zion: 'Zer duk McGuffin bat?', eta bere bidaia kideak erantzun: 'McGuffin bat Eskozian lehoiak ehizatze gailu bat duk'. 'Baina Eskozian ez zagok lehoirik', bota zion lehenbiziko gizonak. 'Orduan hor dagoena ez duk McGuffin bat', amaitu zuen bigarrenak".

Benetan garrantzitsuena McGuffin hori pantailan ez azaltzea zenez, emandako erantzuna hitzaren jatorria saihesteko sortu zuen hitz joko bat besterik ez zen izan. Zazpigarren artera eramanda, kontzeptuaren funtsa berdina zen. Bere filmografia errepatatuz gero, argi eta

garbi antzeman daiteke, *Rear Window* (1954) filmean adibidez: inoiz ikusten ez dugun ustezko hilketak protagonista eta bizilagunen arteko trama sortzen du. Edo *North by Northwest* (1959), James Masonen pertsonaiak jarraitzen dituen dokumentu sekretu horiek. Edo, nola ez, *Psycho* (1960) ezagunean, Norman Bates azaltzen den unean, ustezko argumentu nagusia zirudien diru lapurreta erabat baztertzen denean.

Baina Hitchcock alde batera utzita, errekurtsio hau zinemaren historian eragin handia izan duen beste zuzendari batek ere sarritan erabili izan du: Quentin Tarantino. *Pulp Fiction* filmean (1994) ageri den maleta ezagunarekin adibidez. Istorioaren hainbat unetan ageri den objektua da. Badakigu protagonistentzat garrantzitsu dela, baina ez da ikusleak arreta gehien eskaintzen dion elementua. Barruan zer dagoen jakin nahi dugu, baina funtsezkoena da Vincent Vega eta Mia Wallaceren arteko zita nola joango den. Orduan, objektu hori gidoitik ezabatu eta berdin-berdin? Ez. Maleta hori existituko ez balitz, Marcellus Wallacek ez litzuke Vincent eta Jules

kontratutuko eta agian Samuel L. Jacksonek gorpuzturiko hiltzaile horrek ez luke bere etorkizuna zalantzan jarriko duen "miraria" jasango. Laburbilduz, guretzat oharkabea pasa den elementua, istorioan inflexio-puntua izan da. Horregatik izan ez balitz, aurrerago gertatuko diren akzio guztiek ez lukete inongo justifikaziorik izango.

Dena den, ez du zertan objektu bat izan. Istorioa aurrera eramateko motor hori kontzeptu bat ere izan liteke. *Citizen Kane* (1941) filmean esaterako. Argumentu nagusia Charles Foster Kean (Orson Welles) estatubatuar enpresaburu garrantzitsuaren bizitzari buruzkoa da. Komunikabideetako William Randolph Hearst-en bizitzan oinarritua dago. Filma, enpresaburuak bere heriotza unean aipatutako hitz batez hasten da: "Rosebud". Iritzi publikoa hitz horren zergatiaren jakin-minez dago eta kazetari talde bat esanahia topatu asmoz haren bizitzaren xehetasunak ikertzen hasiko dira.

Baina ikuspegi orokor batetik aztertuz, kontzeptua bi generoetan antzematen daiteke gehien: alde batetik, abenturak ardatz dituzten filmak. Indiana

» Itxuraz filmean garrantzi handirik ez duen elementua da, baina mundu guztiak egiten du bere inguruan dantza: McGuffina oso baliabide erabilia da, bai zinema klasikoan, bai gaur egungo telesailetan



Jonesen, pertsonaiari aurrerago gertatuko zaizkion gertaera guztien motibazio iturri izango den erlikia konkretu baten bilaketa adibidez. Edo pantaila txikian. *Lost* telesailean esaterako. Trauma nagusia gertaera harrigarriak jasaten dituen irla batean gertatzen da. Irla horretan gertatzen diren misterio gehienak, jatorria barne, argitu gabe geratzen dira. Istorioa eta, batez ere, telesailaren benetako bihotza diren pertsonaiak "mugitzeko" McGuffin bat besterik ez zen izan.

Eta bestetik jakina, suspentse eta espioitza filmetan: mikrofilm bat, datu oso garrantzitsuak dituen diskoa, babestu beharreko pertsona bat... beti dago guztia mugituko duen McGuffin horietako bat. Hori bai, inongo arazorik gabe beste edozerengatik ordezkari daitekeena: okerreko eskuetan erori ezin den arma arriskutsua, super-armada bat sortzeko gakoa emango lukeen formula sekretua...

Xehetasun hutsala dirudien arren, gaur egun kontsumitzen ditugun

ikus-entzunezko produktuak aztertuz gero, gidoi-teknika hau etengabe ageri dela ohartuko zarete. Ikuslea harapatzeko tranpa orduan? Nire ustez ez. Amaierako mezuraino iristeko, kontsumitzailea eta produktaren artean dagoen komunikazio hori errazteko baliabide bat besterik ez delako. Tarteke hari guztiak ongi ehunduta utzi behar direnez, gidoilariak gida moduan istorioa eraikitzen laguntzeko erabiltzen duten ideia edo arrazoia, besterik ez. ■

Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia:

JARRI PUBLIZITATEA HEMEN

943 371545 • publiz@argia.eus • www.argia.eus/tarifak

ARGIA

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Berez-berez



Igor Estankona



Arrotz eta eder

PAKO ARISTI

Poesia, Susa, 2016

Urari ostutako poemak (Susa, 2014) izan bazen intelektualizazioak utzi eta bihotza hunkitzen duen poesia filosofikoa, eta orientalismo fin bat jariatzen bazuten hango hausnarketa zenbaitek, *Arrotz eta eder* (Susa, 2016) honetan Pako Aristik lotzen du unibertsoaren ezin besarkatua eguneroko jarrera simple baina funtsean ausart batekin: “Noiz izan gara ederrago/ gaur garena baino?/ Elurraren sein, taosaren haurride,/ laket bizi nahiaren adiskide/ euriaren hitz guztien maitale,/ naizena izatearen izua/ gainditu odoren”.

Kartzelarik handiena gure buruaz daukagun irudia da maiz.

Lotsa eta tabua gainditzen dituenak, ostera, hark dauka heriotzaren giltza: betierekoa izango da bere arima, ez baitio ardura euria den edo oskarbi, biak eskertzen ditu esfortzurik gabe.

Gorrotatzaileari gorrotatzen uzten diona, hark dauka gatazkaren giltza: ezin da bere egoa higatu, ez dauka-eta.

Horregatik dauka Aristik liburu honetan hitzarekin obsesio hori, sasijakintsuaren diskurtsoa barik esperientziaren apaltasuna transmititzeko. Horregatik hautatu du Aristik liburu honetarako erritmo bat mantra baten antzekoa, korronte bat dena zeharkatzen duena, ohore egiten diona edertasunari eta bakeari.

Gaur egon naiz banku batean eserita eguzki zuri batekin eta hodei-beroarekin *Arrotz eta eder* irakurtzen eta begitandu zait liburu sakratu horietako bat dela. Kalifikazioak kalte egingo dio beharbada esan gura dudanari, baina liburu hau *edukia baino harago* doala

deritzot, botere antzeko bat dauka, eta botere hori ez da oinarrizko hizkuntzaren eta irudien xahuketan, baizik eta onarpenean eta biluztasunean: “Hasi eta buka,/ loratu eta zimeldu,/ eta bitartean bizitzera/ eman zaigun aldia/ gozatzea besterik ez da/ gorputzaren jakinduria” edo “Aski dut goizeko/ zure lehen pentsamendua/ eta gaueko maite zaitut/ isil bat,/ arku horren koordenatetan/ eroso eseri,/ orekari bi korapilo egin/ eta bizitza hau/ -beti egin dudan gisan-/ firin-faran igarotzeko/ zu gabe” edo azkenik “oinarrizkoak diren/ ideia arruntak:/ ez harzea dena hain serio”.

Aristik sentitzen duena sentitu izan dugu guztiok noiz edo noiz, diferentzia batekin: berak ezagutzen du bihotzaren mintzoa, bat bakarria den unibertsoak hitz egiten duen hori. Eta zuk ere bai, irakurle. Presente zaudenean, liburu on bat eskuetan, egia dioena. *Arrotz eta eder* ez duzu ulertu behar sikiera, bakarrik gozatu: berez-berez da. ■

Pako Aristi poeta Gorka Arrese editorearekin, liburuaren aurkezpenean.



» TELEGRAMA

Chris Marker eta Mario Marreten *À Bientôt J'espère* filma eskainiko dute Donostiako Tabakalera ekainaren 4an: 1960ko Frantziako greba batean girotua, zinema militantearen klasiko bat da *STOP Paul Collins' Beat* talde beteranoak Gasteizko Jimmy Jazz aretoa hartuko du ekainaren 3an. Aukera paregabea 1980ko hamarkadan erreferentzia izan zen banda berriz entzuteko *STOP Angela Davisen* autobiografiaren gaztelaniazko itzulpena aurkeztuko dute Iruñeko Katakraken ekainaren 7an. Arnaldo Otegi hitz egingo du ekitaldian *STOP*

» DISKOA

Mimoz landutako egurra



Iker Barandiaran



Egunkari ezkutua

ZURA

Oihuka

Xabi Strubell hondarribiarra, lehena ezkerrean, eta Zura taldeko kideak.



Erabat harrapatu nau disko honek: lehen kantuetako danbatekoak eta kontzeptu gisa hain irekia izateak. Goazen enborraren sustraietara: Xabi Strubell hondarribiarra da Zura taldearen aita, gazte-gazte zela Dut taldearen sortzaile eta gitarra jotzailea. Gerora, aditza denboraz aldatu zen eta Hondarribiko hirukotea deseginda, bakoitzak bere aldetik ekin zion. Strubellek Zura taldea sortu zuen eta hasiera-hasieratik bestelako estiloetan arakatu zuen. Hara non, Metakekin lan bat kaleratu ostean, 2008an harrituta –onerako– utzi zuen euskal musika kritika *Kiribil* izeneko bossa-nova piezez osatutako diskoarekin. Gerora, luzaroan ez dute beste diskorik kaleratu, nahiz eta Bidehutssek Mikel Laboaren omenez abiarazitako *Txinaurriak* bilduman parte hartu zuten. Iaz Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria inspirazio hartuta (omenaldi gisa, jakina) honako diskoa kaleratu zuten bossa nova sasoi-ko Nerea Olaxa abeslaria barik Willis Drummondoko Jurgi Ekiza ahotsetan laguntzen dutelarik.

Izan zuenak jarraituko duela izaten esan ohi da, eta hala da zalantzarik gabe disko honetako kantuei erreparaturaz gero. Post-hardcorearen irtotasuna eta indarra oso presente daude hainbat piezatan eta berezko saltsan daudela antzematen da, gainera; oso eroso eta emaitza oso onarekin. Diskoa ukabilkada batekin zabaltzen duen

Zeru lurrak jarlekura itsatsita uzten gaitu; *Euria* Fugazi eta azken garaiko Bap!-etik asko edaten duen rock bizi-bizia da *tempo* erdiekin jolasten dakiena; *Itxaso* erabat melodikoa da, baina gitarrak erabat makurrak eta bateria trumoiaren parekoa, garatuz eta eraldatuz. Trumoiaren ostean aldaketa dator: *Hipotesi txalogarriena* kantu elektro eta dantzagarria. *Errautsak* psikodelian bustia dago, pausatua baina misteriotsua.

Diskoaren erdian zelatan dagoen *Ta heriotza* niretzat hit! bat da: The Ex-en askatasuna, Fugazi-ren aberastasuna, Helmet-en irtotasuna eta Gutariko Bat-en urgentzia abiadura bizian doa inoiz gelditzerik nahiko ez genukeen tren; ederra! *Bi hosto* rock apurtua da, melodikoa eta aldi berean gordina; *Negar isilak* 70eko hamarkadako rockaren esentzia dauka; *Lilurak* badu 90eko new wave bizirik eta rock itsaskorrera eraldatuz punk-rockaren indarra hartzen du bidean; *Landareak* pausatua da, ia xuxurlatua, baina erritmoa oso aberatsa eta askea, eztanda heldu artean. Bukatzeko, *Paris*, tonu geldo baina interesgarria.

Ekizak bestelako ukitua, sarkorragoa, eman die abesten dituen kantuei. Bestalde, musikari espermentatuak direla erakutsi dute aho-betez: lortutako giroak, erritmoak, abestien garapen irekiak... Taldea zuzenean ikusteko deseatzten nago. Ongi etorri bueltan Zura! ■



Itakatik Torreburura, bizitzaren bidaiia



Dabi Piedra

Entzule guztiak adi-adi, ikusminez, zain eta halako batean agertu da Xabier Amuriza taula gainera. Beltzez jantzita, solemnitaterik gabeko bat ere nabari zaio. “Bat-batean konturatu nintzen Ulises nintzela”, ekin dio errezialdiari. Hala, munduko gorabeherak ikusten, baina ez beti ulertzen, hasiko da Ulises izeneko mutikoa, bizitzaren bidaiia harri-garrian.

Bost ekitalditan banatutako entzunkizuna da *Zein ongi bizi zen Ulises*. Hitzak tresna bakar duela, ordu eta laurdenez entzule guztiak istorioari kateatuta izan ditu Amurizak eta minutuak bizkor pasa dira. Gogoetatik badu saioak, umoretik ere bai. Pasadizo barregarriak, istorio liluragarriak eta hausnarketa burutsuak tartekatuta, Ulisesen bizi ibilbidea ezagutu dute bertaratutakoek eta beren buruari galdetu diote fantasiako erre-

lato bat entzuten ari ote diren, ala erreallismo biziko kontakizun bat.

Izan ere, Ulisesen munduan, pertsonen Grezia klasikotik hartutako izenak dauzkate eta abereek, aldiz, pentsalari ospetsuenak, hala nola Descartes, Newton eta Kafka. Era berean, haur denboran lehenengo eta postari lanean ondoren, Ulisesek baserri giroko gizarte tradizionalako pertsonaiekin topo egingo du: apaizak, artzainak, bertsolariak eta abar.

Ume baten xalotasunetik agertuko du mundua Ulisesek entzunkizunaren aurreneko zatian. Bigarrean, pixka bat koskortuago eta postari lana hartuta, bizitzaren gazi-goza ikasiko ditu, pertsonaia bitxi bidez. Hirugarren eta laugarren zatian laburragoak dira, umore garratzagora eta exageraziora jota.

Bosgarren atalean, gogoetarako tartea hartuta biribiltzen du entzunkizu-

ZEIN ONGI BIZI ZEN ULISES

Oholtza gaineko bertsolaritza utzi berri, Ulises euskaldunaren azalean agertu zen Xabier Amuriza Bilboko Bidebarrieta liburutegian, maiatzaren 19an. Maisua omentzeko beste emanaldi berezi hauek egingo dira ekainean:

16an Etxanon *Amurizaren gaiak eta garaiak* berbaldia; 17an Durangon *Emaidazue freskura* lagunarteko kantaldia eta 19an Etxanotik Berrizera *Amurizaren bideak eta aireak* erromesaldi artistikoa.

na. Urteen talaiatik, behin bizi izanda nahikoa dela deritzo Xabier Amurizak, bigarren aldiz biziko bagina berriro gauza bera egingo genukeelako. “Heriotza usnatu behar da bizitzaz gozatzeko”, bota du, Gabriel García Márquezi aipua eginaz. Horretan dihardu, bizitzari zukua atera nahian, *Zein ongi bizi zen Ulises* entzunkizuna lekuko: “Ez naiz erretiratu, ontziz aldatu baizik”.

Ulisesek, postariaren etengabeko bidaiaren, bizitzaren zirrikitu gehienak ezagutu ditu, Xabier Amurizak ere ezagutu dituen bezala. “75 urte behar izan ditut konturatzeko Ulises izeneko haur hura neu nintzela”. Etxera itzultzeko unea iritsi zaio, baina ez du Itakako bidea hartu. “Euskal Herrira, Zornotzara, Etxanora, Torreburura itzuli naiz eta bidean zuek guztiak aurkitu zaituztet’”. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

Gaia: Idazle lapurtarrak



Ezker-eskuin:


1. Itxura, taxi. Ur ..., 1972an jaioa, euskaltzain urgazle izendatu zuten 2006an. *Gauak eta hiriak* izan zen argitaratu zuen lehen eleberria, eta harengatik 1998an Beterriko Liburua Saria irabazi zuen. Bekaizkeria. 2. Inurrien bizileku. Orin. 3. Gar. Mutilentzako dei-hitza. *Itxaro...*, Baionan jaio zen 1959an. Lanbidez postaria, poesia liburu ugari argitaratu ditu, baina eleberririk ere. Aurtengo Sarako Idazleen Biltzarrean, Biltzar saria jaso du. 4. Libiako herritar. Gineako biztanle. 5. Banku bateko jabe. 6. Antzinako Greziako poeta. 7. Tontor, gain. Adia, kexu. 8. *Daniela...*, Urruñan sortu zen 1936an. *Idazteaz aparte, euskal kulturaren, politikan eta euskararen irakaskuntzan buru-belarri aritu zen gaztetatik. 2015eko otsailean zendu zen Urruñan.* Intsektua, xinaurri zuri ere esaten zaio. 9. Doan. Nahasteak. Ezerez, ezdeus. 10. Arraza, kasta. Ordainetan. Buztanzuri.

Goitik behera:

1. Etorri. Ustekabeko eraso. 2. Leku atzizkia. Sail, eremu. 3. Lama. Ur-korrante natural. 4. Italiako diru zaharra. 5. Ez eme. Zerbaiteko gogo bizia, irrika. 6. Pilotan, tanto ziurra. Buruan jartzen dena. 7. Zatia. 8. Nafarroako herria. 9. Zilarra. Berkelioa. 10. Emeen ugatza. 11. *Piarres...*, 1921ean *Hazparden* sortu zen euskaltzain emeritua. *Jean Etxepare medikuaren lanak bildu ditu.* 12. Otoitz izena. Gehitzeko partikula. 13. ... pare, aurrez aurre. 14. Txakurraren usaimena. 15. Normal, eguneroko. 16. Dut, Gipuzkoan. 17. Kristo ondoren. Eztanda egiten duen jaurtigaia. 18. Baratz landare. Interjekzioa. 19. ... Lavin, txirindularia. Abereak uxatzeko. 20. Otzara handi. Begirada. 21. Liburu lagungarri. Erbia. 22. Onartzera behartu.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Hamar gehi hamar.
2. Oso.
3. Zain, aiduru.
4. Ekiteko ekintza.
5. Letra grekoak.



Soluzioak



5. Iotak.
4. Ekina.
3. Goait.
2. Osoko.
1. Hoga.

5x5:
1. Jm, Segada. 2. An, Alor. 3. Su, Iba. 4. Lira. 5. Ar. Uzi.
6. Pk, Buruko. 7. Atala. 8. Lerrn. 9. Ag, Bk. 10. Tria.
11. Xarriton. 12. Gloria, Ere. 13. Pare. 14. Suma.
15. Ohiko. 16. Det. 17. Ko, Granada. 18. Arbj. Et.
19. Ibon. Ux. 20. Zare. 21. Gida. Et. 22. Onararazi.

Goitik behera:
Deusez. 10. Aria, Ordainez, Otaxori.
7. Gallur, Auhon. 8. Albizu, Tormita. 9. Doarik, Oreak.
Txo, Borda. 4. Liblari, Ginear. 5. Bankari. 6. Rapsoda.

Ezker-eskuin:
1. Jas, Apartategi, Bekatzgo. 2. Inurriegi, Orban. 3. Kar.

Amaia Antero. Pedagogia eraldatzaileak lantzen



Edukiz betetzen dizkigute buruak munduratu orduko. Zenbakiak, koloreak, matematikak, historia eta geografia. Bizitza, baina, hortik haratago kudeatu behar den prozesu konplexua da. Besteekin eta, era berean, nork bere buruarekin. Orain arteko hezkuntza sistemak eman ez dizkigun tresna horiek guztiak erakusteko anbizioarekin etorri da konfiantzaren pedagogia. Halaxe du izena, hain zuzen, Amaia Anteroren liburuak: *Konfiantzaren pedagogia*.

“Etorkizuneko pertsonak antzinako prozedurekin hezten ari gara”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Abantailak

“Gure lantaldeak esku hartzen duen ikastetxeetan adinak nahasten ditugu espazioetan, kalean eta plazetan gertatzen den bezala, edota komunitate indigenetan. Modu honetan, zaharrenei zaintzarako sena aktibatzen zaie txikiekin, eta txikiei imitazioarako ereduak ematen zaizkie. Bestalde, adinak nahasteak erritmo kognitibo desberdinak eta haurren interesak errespetatzea ahalbidetzen du”.

Zer da zehazki konfiantzaren pedagogia?

Terminoen araberrako definizioa hartzen badugu, pedagogia hitzak pertsona bati hezkuntza-ibilbidean zehar ematen zaion laguntza adierazten du. Nolokotasunaz ari da, nola esku hartu behar duen helduak haurraren edota gaztearen ibilbidean. Horri konfiantza hitza gehitu diogu, gure diferentziala bilakatu. Gure ustez ezinbestekoa da ikasleak bere buruarengan, ingurukoengan eta testuinguruan konfiantza izatea ikasirakaskuntza prozesuan. Hori lortzen denean, ikaslea prest eta zabalik egoten da ikasteko.

Zer hutsune ikusten dituzu egungo hezkuntza ereduaren?

Erretrobisorearen irudia lagungarri izan daiteke gai honetaz aritzeko: aurrera goaz baina begirada beti atzerantz jarrita. Salbuespenak salbuespen, esan liteke etorkizuneko pertsonak hezten ari garela antzinako prozedurekin. Hutsunea non dago? Aurreko ereduaren irakaslea izan da zentroa eta ikaslea pasiboa. Ezagutzaz bete dira ikasleen

buruak, baina ikaslearengan dagoenetik abiatu gabe. Horregatik esaten dugu ikaskuntzan zentratu eta rolak aldatu behar direla.

Proposatzen duzuen ereduak zertan eraldatzen ditu pertsonak?

Oso inportantea da ikaslea pertsona moduan ikustea, ikasten ari den norbanako moduan; horrek humanizatu egiten du hezkuntza. Proiektu akademikotik haratago, ikasleei bizitza proiektu oso bat eraikitzen lagundu nahi diegu. Horretarako, gaitasun eta adimen mota guztiak hartzen ditugu kontuan eta testuingurua eskaintzen dugu horiek lantzeko; hezkuntza tradizionalan adimen logiko-matematikoa eta hizkuntz adimena lantzen dira nagusiki, baina beste gaitasun guztiak non gertatzen dira? Bizitzan horiek guztiak behar ditugu.

Umeak eskolan hasten diren une hori...

Haurren bigarren sozializazio prozesua eskolan hasten da. Oso goiz izaten da, eta gure lantaldean izugarri zain-



“Bizi ez duenak nekez transmitituko du konfiantza, ezin ditugu neska-mutikoak eraman gu sekula iritsi ez garen lekura. Horregatik, konfiantzaren pedagogian garrantzi handia du norberak egiten duen barne lanak”.

tzen dugu momentua. Ez dugu adaptazio asterik, uste baitugu haurrak berak adieraziko duela noiz amaitu den fase hori. Sentsibilitate handiz egin beharra daukagu erreferentziatzeko figuretatik (gurasoak, amak, aita...) eskolako figuretarantzko (irakasleak, gainerako hezitzaileak...) konfiantzaren transferentzia. Horregatik, guretzat garrantzitsua da familiak eskola barrura sartzea eta behar adina denbora egitea bertan. Hezitzaileongan portu segurua aurkitzen duenean haurra esploratzeko eta ikasteko prest dago. Eta gauza bera gertatzen da goiko etapetan ere.

Konfiantza ezinbestekoa da. Zergatik?

Galdera bat luzatuko dizut oraingoan nik zuri: pentsa ezazu erabateko konfiantza duzun pertsona batengan; ekarri gogora. Zerk eragiten dizu beregan konfiantza hori izatea?

Leialtasunak, aurrebaldintzarik ezak...

Normalean ateratzen diren erantzunak horiek dira, bai. Behar dudanean hor dagoela, nagoen moduan onartzen

nauela, ondo egon edo gaizki egon ondoan dagoela, ez nauela epaitzen, nire erritmoak errespetatzen dituela, nigan sinesten duela. Sentimendu horiek guztiek norberaren autoestimuan eragiten dute, baita konpetentzia sentimenduan ere. Pertsona batek hori dena norbaitengan jartzen duenean gai sentitzen da erronkei aurre egiteko. Osagai horiek harremanean bat egiten dutenean konfiantza sentitzen da eta horiek lagundu egiten dute norbera baliotsu eta egoerei aurre egiteko gai sentiarazten. Hori ezinbestekoa da bizitzan aurrera egiteko.

Noiz zapuzten da konfiantza?

Hain zuzen ere, hori guztia falta denean. Behar izan duzunean norbait eta ez denean egon. Barrua ireki diozunean norbaiti eta epaitua sentitu zarenean. Zure erritmoa behar izan duzunean eta beselakoa exijitu dizutenean. Zauriak sortzen dira orduan, eta gogorra da, baina zorionez bizitza osoan dugu zauri horiek sendatzeko aukera, lan pertsonalaren bitartez.

Mugak beharrezkoak omen dira, baina bantzuetan ez al da beldurren transmisioa egiten?

Behin baino gehiagotan galdetu izan digute “orduan konfiantzaren pedagogian dena da posible? Ez dago mugarik?”. Pertsonak mugak behar ditu, noski, segurtasuna ematen diotelako eta norberaren burua errespetatua izan dadin besteena errespetatzeko muga horiek behar ditugulako. Askotan ordea, mugak baino beldurren transferentzia bat ematen da sasi-arau eta sasi-muga batzuen bitartez, eta horiek bereiztea inportantea da. Zer den beldurra eta zer muga.

Bere buruarengan konfiantzarik ez duen heldu batek konfiantza transmititu diezaioke haurrari?

Bizi ez duenak nekez transmitituko du konfiantza. Besteekiko eta bizitzarekiko konfiantza ez duenak, lan hori bere buruarekin egin ez duenak, nekez helaraziko dio hori inori. Ezin ditugu neska-mutikoak eraman gu sekula iritsi ez garen lekura. Horregatik, konfiantzaren pedagogian garrantzi handia du norberak egiten duen barne lanak. ■



Cristiano Ronaldok promozionatuko du Anjel Lertxundiren *Zu* eleberria

Erein argitaletxeak Cristiano Ronaldo Real Madrileko aurrelari apalaren irudia baliatuko du Anjel Lertxundiren *Zu* eleberriari publizitate apur bat egiteko. Zehazki-mehazki, jokalaria ospetsuak golak ospatzeko egiten duen orroa izango da kanpainaren leloetako bat: "Zuuuuuuuuuuuuuu!", hama lau u-rekin. Beste leloa jokalaria bera izango da.

"Askok pentsatuko dute ezetz, baina uste baino lotura handiagoa dago nobelaren eta jokariaren artean", esplikatu du Erein argitaletxeko marketing arduradunak zoroetxera bidean zela, "adibidez: liburuak ez du orrialde bat bera ere sobera, eta beste horrenbeste esan daiteke Ronaldoren gorputzaz; ikusi dizkiozue abdominallak?". Real Madrilek hamaikagarren Europako Kopa irabazi berri duela eta eurei ideia hamaikagarren kopa har-



Hau al da gizon kabal baten piura?

tu ostean otu zitzaiera argudiatu dute Ereinekoek, halaber.

Jokariaren hurbilekoek onartu dute arraroa dela inoiz eleberri bat irakurri ez duen norbait arduratzea haren sustapenez, baina tira, behingoagatik...

SAREAN ARRANTZATUA

Rajoyk bere entzefalograma txiokatu du



'Hortzak estuturik' diskoa norena den badakizu, 6. fasean zaude

HORTZETAKO ESKUILAREN DIZITZA



Ibilaldian euskaraz egin duen gaztetxo bat aurkitu du norvegiar ikerlari batek

Ezkutuko altxorren bila hara eta hona ibiltzen den Edmund Snorkelsson norvegiar tipikoak ezusteko aurkikuntza egin zuen joan den maiatzaren 29an, Durangon egiten ari zen Ibilaldian: euskaraz egiten ari zen nerabea. "Badakit sinestezina dela, baina datuak behin eta berriz konprobatu ditut, egiazkoa da", defendatu da

Snorkelsson, nerabea faltsifikazioa besterik ez dela zioten mesfidatien erasoez. "Ea hurrengoan alkoholik edan ez duen bat aurkitzerik dudán", gaineratu du.

Ez da Snorkelssonek egindako lehen aurkikuntza harrigarria. Behin batean kirolari buruzkoa ez zen albiste bat aurkitu zuen asteleheneko egunkarian.



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALZALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA



Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzean* jasotzen den bezala, *gaur egun, iraultzailea den gauza bakanetako bat baratzea da. Lurrekiko lotura, elikadura burujabetza, bertako mozkinak, bioaniztasuna, osasuna, bizitza kalitatea, paisaia kulturala. Zer da ba iraultza? ARGIA*n burujabetzaren aldeko apustua egiten dugu, bai elikadurari dagokionean, baina baita komunikabide bezala, informazio burujabetzaren bidean ere.

EKAINENKO ZOKKETAK



Mugarik gabe GKE
Material sortak

www.mugarikgabe.org



Jakion produktuak
Kontserba saskiak

www.jakion.es



Euskal Herriko Laborantza
Ganbararen DVD eta liburu sortak

www.ehlgbai.org



Jakoba Errekondoren Bizi
Baratzea eta Ilargiaren egutegia

www.bizibaratzea.eus

MAIATZEKO
SARITUAK

JOXEMI ZUMALABEREN DABILEN HARRIARI GOROLDIORIK EZ LIBURUA: HARITZ ALBERDI (GETARIA), LAURA BADIOLA (ONDARROA), ZURIÑE SARASOLA (DONOSTIA), ANDRES ODRIUZOLA (ZARAUTZ), MALENTXO ARROSPIDE (LIZARTZA)
ARRIGORRI OSTATUAN EGONALDIA: MAMEN UHARTE (LEITZA)
LANKI IKERTEGIKO MATERIALA: GERNIKA-LUMOKO UDAL LIBURUTEGIA (GERNIKA), PATXI XABIER GONZALEZ (GASTEIZ), DAVID CASCAN (BARAKALDO), SANTIAGO GUTIERREZ (DIMA), EDURNE BALZATEGI (ARRASATE)
REAS SASKIAK: JUAN IGNACIO ELOSEGI (BERASTEGI), ROBERTO IZAGIRRE (BERGARA)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi
nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

natura **SAREA** **2000**

Naturagune
babestuak sare
koordinaturik
handiena. Pertsonak
eta natura bat eginda.

10 M€

Euskadik Europako
batez bestekoa baino %
30 gehiago inbertitzen
du urtero.

60

Naturagune Babestu

%20,5

Euskadiko lurraldearen
% 20,5 Natura Sarearen
barruan dago (Europar
Batasunaren batez
bestekoa %18 da)



EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAREA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL